



ARGIA



OLATUKOOP 10 URTEZ

Gizartea eraldatzeko, lana eta herrigintza

24-31. orrialdeak

#2.870 | 2024/05/12 | 4,00 €



**Nina: Iragarritako
'señorizidio'
baten kronika**

14 | PATRICIA LÓPEZ ARNAIZ



**Palestinaren
aurkako jazarpenaz
Alemanian**

32 | GHAYATH ALMADHOUN



**Berpiztu da
antzerki herrikoia,
9 urteren ostean**

46 | IRUÑEKO PASTORALA

KIT DIGITALA

Zure erakundearen
jarduna digitalizatzeko
finantziazioa behar duzu?

50 langile arteko enpresa, elkarte edo autonomia bazara,
12.000 euro arteko bonu digitala lortzeko aukera duzu.

Urte bukaera arteko epea daukazu diru-laguntza gure bidez
eskatzeko eta hurrengo zerbitzuak finantzatzeko:



WEBGUNEA ETA
PRESENTZIA
INTERNETEN



MERKATARITZA
ELEKTRONIKOA




SARE SOZIALEN
KUDEAKETA



BULEGO BIRTUALEKO
TRESNA ETA
ZERBITZUAK

GEHIAGO JAKIN NAHI?

Gurekin harremanetan jar zaitez 943 376 716
telefonora deituz edo kaixo@iametza.eus
helbidera posta elektronikoko bat bidaliz.



Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 07 | MATERIALISMO
HISTERIKOA
- 07 | EZ HANKA EZ BURU



AZALEKO ILUSTRAZIOA: IONE LARRAGO

Iritziak

- 19 | ASIER BLAS
- 20 | JOSEBE BLANCO
- 21 | MIKEL OTERO
- 21 | LEIRE NARBAIZA
- 22 | JON ALONSO

Finkoak

- 36 | GORPUTZ HOTSAK: ESPE
CIRIZA
- 40 | BIZI BARATZEA
- 44 | ARGIA KOMUNITATEA
- 45 | DENBORAREN MAKINA
- 50 | DENBORA-PASAK
- 51 | KULTUR-KRITIKAK
- 54 | EZETZ ASTEA ONDO BUKATU

SAILEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK: CLIPART COURTESY FCIT



TINA CASE

32 | POETA PALESTINARRA ALEMANIAREN ZENTSURA SISTEMIKOAZ

Ghayath Almadhoun poeta elkarrizketatu du Nerea Menorrek. Egun Alemanian bizi da eta bere lanak ia 30 hizkuntzataraz itzuli dira. Idazle eta poeta palestinarrek Alemanian bizi duten zentsura azaldu du, nola ari diren lanik gabe geratzen. "Etorkizunean palestinarrekin gertatzen ari denagatik damua eta lotsa sentituko dituzte" iragarri du.

Elkarrizketak eta erreportajeak

12 | NET HURBIL

Ekialdeko Afrikan eurite aldaketei egokitzeko ekimenak martxan

Nicolas Goñi

14 | PERTSONAIA | PATRICIA LÓPEZ

"Amorrua, hira eta mendeku nahia emakume baten motorrak ere izan daitezke"

Reyes Ilintxeta

24 | EKONOMIA | OLATUKOOP

Hamar urte lanean, denontzako bizitza oparagoaren alde

Urko Apaolaza

38 | ELIKADURA | AMILLUBIREN FESTA

Lurra taupaka hasiko da

Estitxu Eizagirre

46 | KULTURA

Pastoral bat Iruñearendako

Amets Aranguren

Jabetza
Komunikazio Biziagoa
S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea

Erredakzioa
Ainara Rodil, Amaia Lekunberri,
Axier Lopez, Eneritz Arzallus,
Estitxu Eizagirre, Gorka Peñagarikano,
Jenofa Berhokoirgoien, Jon Torner,
Lander Arbelaitz, Leire Artola,
Manex Moreno, Mikel Garcia, Olaia L.
Garaialde, Onintza Irueta, Pello Zubiria,
Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga

Diseinua
Maitane Gartzandia

Argazkilaria
Dani Blanco

Produktzioa eta inprimaketa
Antza S.A.L.

Administrazioa
Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde

Salmenta
Karlos Olasolo, Pello Basurto

Banaketa
Olatz Korta

Azoka
Mikel Olabide

Idazkaritza
Aloña Soraluze, Bego Zuza

Web garapena
Asier Iturralde

Informatika
Iametzta interaktiboa, S.L.

Lege gordailua: S5 837-2012
ISSN: 0213-909X
Batzorde parekidea: 72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikoa
komertzial@argia.eus
komunitatea@argia.eus

Telefonia
943371545

Gipuzkoa
Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria
Nafarroa
Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina,
31001 Iruñea

Ametzagaña taldeko kidea da ARGIA
honako enprekin batera:

antza
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

iametzta


ADUR software
productions

Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu,
moldatu, zabaldu eta argitaratu
ditzakezu, gure egiletza aitortu eta
baldintza beretan eginez gero.



Lizentzia hau baliagarria da
testuentzat eta, argazkien eta
ilustrazioen kasuan, ARGIAren
sinadura daramatenentzat soilik.

 Ekoedizioaren Institutuko
bazkide da ARGIA

 **OLATUKOOP**

EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN
SAREKO KIDE GARA



ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDETZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Bigarren aukera

Gerratik, pobreziatik edo indarkeriatik ihesi, familia eta lagunak atzean lagata, zure aurrezki guztiak xahututa, askotariko arriskuz jositako milaka kilometro gainduta, mota guztietako mafia eta polizia ustelei aurre eginda, itsaso bat zeharkatuta zeinean zure bide bera egin duten milaka pertsonen hilotzak dituen hondoan... eta helmugara heldu zara, bizitza duinaren xerka lan eskasa eta prekariora lortzeko. Baina hemendik aurrera Europan horrela "sarituko" dizute ahalegina: atxilotu, tarte batez giltzaperatu, hegazkin batean indarrez sarrarazi eta 6.000 kilometro baino gehiagora abandonatu, zehatzago esanda, Ruandan. Dena legezkoa, apirilaren 22tik Britainia Handian. Hau da, ez baduzu lehen saiakeran lortu, bigarren aukera bat eskainiko dizute, oraingoan bai, bidean hil zaitezten. Goebblesi barre txikia atera zaio hilobi barruan.

📍 Bi pertsona ontzi batera igotzera doaz Frantziako Gravelines hondartzan, Mantxako kanala zeharkatu eta Ingalaterrara heltzeko. **SAMEER AL-DOUMY / GETTY IMAGES**

🔗 **AXIER LOPEZ**





Grebaren eta langile borrokaren balioak aldarrikatu dituzte Maiatzaren Lehenean

 URKO APAOLAZA AVILA

Maiatzaren Lehenean, beste urte batez langileek kaleak hartu dituzte Euskal Herrian eta mundu osoan. Bilbon, Gasteizen, Iruñean eta Baionan izan dira mobilizazio nagusienak gurean. Sindikatuak euren aldarrikapenak egin eta marra gorriak zein diren ohartarazteko aprobetxatu dute, eta euren hitzaldietan etengabeak izan dira EAeko gobernu berriari emandako mezuak.

ELA: GREBA GEHIAGO, EMAITZA HOBEAK

Mitxel Lakuntza ELAko idazkari nagusiak, Bilbon, milaka lagunengana, zerbitzu publikoak indartzearen beharra adierazi du, eta sindikatu horrek konfrontaziorako bidean jarraituko duela ohartarazi die patronalari eta gobernuei, greba balioan jarrita: "Zenbat eta greba gehiago, orduan eta emaitza hobeak".

Oposizioan dauden ezkerreko alderdiei, aldiz, Lakuntzak eskatu die ez deza-tela "herri" akordiorik egin "pribatizazioa eta botere ekonomikoaren aldeko fiskalitate bultzatzen dutenekin", izan ere, bere esanetan "herri akordio horiek posible dira eskuineko edukiak onartzen badira".

LAB BAIONAN, INTERSINDIKALEAN

LABek Iruñean egin du manifestazio nagusia. Garbiñe Aranburu eta Igor Arroyo koordinatzaile orokorrekin probestu dute

Mobilizazio ia guztietan ikusi dira palestinar banderak, eta Palestinako herriaren aldeko oihuak entzun dira

sindikatuak 50 urte egin berri dituela, orain arte langile borrokaren bidez lorturikoa azpimarratzeko. LABek 50.000 afiliaturen langa gainditu du lehen aldiz.

Aranburuk "bizitza duinak eta bizigarriak" eskuratzeko borrokan jarraituko dutela ziurtatu du. Arroyok, berriz, 30 orduko lan astea eta beste hainbat aldarrikapen jarri ditu mahai gainean. Hain zuzen, lanorduen murrizketa izan da sindikatuak aurten egin duten aldarri nagusienetako bat.

Baionan ere manifestatu da LAB, aurten lehen aldiz intersindikalaren mobilizazioan. Hainbat urtetan segregaturik egon eta gero CGT, CFDT, FSU, Solidaries eta UNSA sindikatuarekin batera ateratu da LAB karriketara. Eñaut Aramendi sindikatu abertzaleko kideak salatu du Frantziako Gobernu greba eskubidea murriztu nahian dabilela, eta hori gertatu ez dadin borrokan jarraituko dutela hitz eman du.

BANDERA GORRIAK BILBON

Maiatzaren Leheneko mobilizazio jendetsuenetako bat EHKS-ren eskutik izan da Bilbon. Bandera gorriak eskuan, milaka lagunek aldarrikatu dute Langileen Nazioarteko Eguna ez dela "oroimenerako egun huts bat", eta iraultza sozialistaren alde egin dute.

"Munduko proletalgoaren hamarkadako ondare iraultzailea geure egin, irakaspenak eguneratu eta gizarte kapitalistaren aurka langilearen boterea eraikitzen jarraitzeko beharra da gaur aldarrikatu nahi duguna", azaldu dute, *Gedar* langile kazetak jaso duenez.

Gazaren kontrako genozidioa go-goan izan dute, ez bakarrik EHKS-ren manifestazioan, sindikatuak antolatutako mobilizazio ia guztietan ere ikusi ahal izan dira palestinar banderak, eta Palestinako herriaren aldeko oihuak entzun dira.

CNT, FOLKLORETIK HARAGO

Mugimendu anarkistaren erreferente den CNT sindikatuak Bilbon, Iruñean, Donostian, Barakaldon eta Gasteizen egin ditu mobilizazioak Maiatzaren Lehenean, langile-klasearen emantzipazioaren alde. Azaldu dutenez, egun horrek "langileen folkloretik harago, milaka pertsona mobilizatzen" balio izan du.

Bilbon hainbat sektoretako langileek hartu dute hitza amaieran. Lan munduaren zentraltasuna eta borroka sindikala berreskuratzeko beharra aldarrikatu dute. Gainera, Europan eta munduan bizi den egoera "pro-belikoa" ere salatu dute: "Gerrako keynesianismoa inposatu nahi digute, gerra estatuen eta kapitalaren ekonomia suspertzeko elementu gisa".

CCOO eta UGT sindikatuak elkarrekin irten dira kalera Hego Euskal Herriko lau hiriburuetan. Raul Arza UGT-Euskadiko idazkari nagusiak ere Eusko Jaurlaritza berriari egin dio aipamena, eta oharra bidalio dio, esanez "beste erremediorik" geratzen ez zaienean, greba erabiltzen jarraituko dutela euren esku-bideak defendatzeko tresna modura. ●



LAB SINDIKATUA

MATERIALISMO HISTERIKOA

Zainduta



UXUE APAOLAZA LARREA

Umea gelan erantzten utzi, eta ni lau minutuan jantzi naiz, bi pasa behar izan ditudalako pulamentuzko kulerorik ez dudala ohartzeko, eta souvenir moduan gordeta nituen norbaiten kaltzontziloak janzteko. Nik bakarrik jakingo dut galtzen azpian Spiderman daramadala. Hogeita bost gutxi. Bost minutu honezkero aspaldi biluztuko zen umea janzteko. Logelara abiatu naiz, “jantzi egingo gara, pitxin”, eta pitxin zegoen pijamaren hanka bat erantzita, bestea jantzita zapatila eta guzti, goiko aldea buff baten moduan lepoaren bueltan, gelan zehar lasterka, argia itzaltita, linternarekin sabaian marrazkiak imajinatuz eta argizatuz. Ez ziren bost minutu izango.

Lehenengo kaxan huts egin dugu, txiki, etxetik atera baino lehen: jaiki eta zure irudimen une oparoenak ordutegi eta pauta arrotzertara makurtu beharra da lehenengoa. Jaiki, gosaldtu, garbitu, jantzi, abiatu. Eta errieta egin behar dizut (ni naiz zure lehen kartzeleroa), obeditzen ikas dezazun, lehenbailehen, ate joka hasten direlako bestela irakaslea, berritzegunea, pediatra, eta inguruko (polizia) guztiak. Eta aberatsak bagina, edo hezkuntza pribaturako joera handiagoa bagenu, baliteke ratioak beste batzuk izatea, eta arazoak ere bai, baliteke kaxa zabalagoa izatea. Baina hogeita hiruko gela batean zaude, eta geldi egon behar duzu. Zure irudimen une oparoenak geldi egotera makurtu behar dituzu, geldi egoteko kontzentratzen. Eta jangelan, ikasgelan bezala, abiadura ezarrita dago, menua ere bai, dena jan behar duzula ere bai, eta janariaz berriketa gutxi, ipuinak gutxiago. Arratsaldea ere kaxaz kaxa pasako ditugu. Horretarako prestatzen ari zara bulego (koloretsu) itxurako leku horietan guztietan. Kaxaren neurrien barruan bizitzeko.

Kaxetako zirrikituetatik begiratzen irakatsi beharko diot momentuz, irteteko gehiegizko gogorik piztu gabe. Ez dakit. Nolabait irakatsi beharko dizut kaxetara kondematuta gaudela momentuz, baina iritsiko dela eguna gaitasuna edukiko duena kuleroen ordeztu maitale baten Spidermanen kaltzontziloak eramateko, inor enteratu beharrik gabe. Eta, batzuetan, baita galtzak jaisteko ere. Zainduko duen polizia kopuruaren arabera. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com



Guda zikina

Jose Miguel Etxeberria *Naparra* aurkitzeko bigarren saioak porrot egin du Landetako Mont de Marsan inguruetan. 2014an, NBEk onartu zuen *Naparra* indarrez desagerrarazi zutela, berea gizateriaren aurkako krimena dela, delituak ez duela preskribatzen eta auzia argitu arte ikertzen jarraitu behar dela.

Presoak

Badira sei-zazpi urte kartzelan lanean aritu den euskara-irakasleen sare bat, presoek euskara ikasteko duten eskubidea bermatzeko helburuz: Presoen Euskara Irakasleen Taldea. Taldeak agur esan berri du; administrazioari pasa diote kartzeletan euskara eskolak emateko lekukotza.

Trans identitatea

Transen eskubideen aldeko elkarretaratzea egin dute Baionan, 800 eragilek deituta. Transen aurkako erasoen gorakadak, eskuineko alderdiko senatarien lege proposamenak eta *Transmania* liburu transfoboaren argitaratzeak akuilatu dute mobilizatze beharra.

Jauzi Ekosoziala eragilea aurkeztu dute

ESTITXU EIZAGIRRE KEREJETA

Jauzi Ekosoziala eragilea aurkeztu dute Eibarren. Helburu nagusia "sistema ekozidaren aurrean, eta krisi anizkoitzen kontestu batean, Euskal Herrian justizia sozialean oinarritutako trantsizio ekosoziala bultzatzea da". Horretarako, "borroka kulturala disputatzea eta gehiengoak artikulatzea" dute bide eta Euskal Herriko lurralde guztietako ikuspegiak batzeari lehentasuna ematen diote.

"Hegemonia Neoliberalaren aurrean, Jauzi antikapitalista eta propositibo da, bizitza bizigarrien aldekoa. Krisi sistemikoaren konplexutasunaren aurrean ezagutza zorrotzean oinarrituriko irakurketa eta proposamenak egin nahi ditu, betiere egiturazko eraldaketei bidea irekitzeko. Horretarako, desazkundera eta burujabetza giltzarriak direla uste dugu", azaldu dute.

Hiru helburu nagusi zehaztu dituzte aurkezpenean: batetik, trantsizio ekosozialaren inguruko gogoeta gizarteratzea; bigarrenik, ekologismoa zeharka lantzea gainontzeko eragile eta borroka sozialekin; eta hirugarrenik, alternatiba integral bizigarriak planteatzea.

Udan kanpaina bat egingo dutela iragarri dute: "Gehiegikeriaren gizarte honetan nahikotasunez jokatzeko beharra aldarrikatuko dugu eta udan egiten ditugun kontsumo neurrigabeei alternatiba jasagarriak eskainiko dizkiegu".

Amaitzeko, herritarrei dei egin diete "Jauzira zein tokian tokiko eragileetara batzeko, borroka ekolosozialetan bat egitera". Izan ere, nabarmendu dute "larrialdi egoera bete-betean" gaudela eta hurrengo urteak "erabakigarriak" izango direla "gure biziraupenerako". Eraldaketa "hasia egon beharko luke", salatu dute, eta herritarrek parte hartzea eta antolatzea "funtsezkoak" direla adierazi, "herritarren beharrak lehenesteko". Zehazki, mobilizazio batean parte hartzera deitu dituzte herritarrek: "Maiatzaren 11rako Karta Sozialak bultzatutako eta Su Txikien Itsasotik abiatutako manifestazio nazionalarekin bat egiten dugu eta bertara joateko deia zabaltzen dugu". ●

ANALISIA

Harpidetzen joan-etorria

XABIER LETONA BITERI

Espainiako Estatuan hedabide digitalak edota prentsa kontsumitzen dituen herritarren %66k ez du ezer ordaintzen horregatik. Orain apur bat gehiago hasi dira ordaintzen digitalak, baina ezer gutxi, %13k ordaintzen baitzuen zerbait 2022an (*Digital News Report España 2023*. Nafarroako Unibertsitatea).

Ez litzateke ARGIArik inork ordainduko ez balu, baina gurean ekoizten den guztia kontsumi daiteke doan. Ahal eta nahi dugulako egin dugu apustu hori, gure kazetaritza proiektuak defenditzen duen munduarentzat onena horixe delakoan: Euskal Herri euskalduna, burujabea eta, besteak beste, kapitalismoa eta patriarkatua gainditzen lagunduko duen kazetaritza.

Kabitu ezinean entzuten duzu harpidedun berri bat egin dugula, eta baja bakoitzak kolpatzen zaitu. Joan den astean, adibidez, harpidedun batek baja eman zuen EHKsri elkarrizketa egin geniolako, bere ustez haiei buruzko gauza asko argitaratzen dugulako. Euskadi Irratian, *Berria*-n eta *Gara*-n ere ikusi ditut EHKsri buruzko elkarrizketak edo informazioak, ez dakit asko edo gutxi ote diren ordea, eta horregatik bajak jasotzen dituzten.

35 urteko kazetari ibilbidean hainbatetan ikusi ditut halakoak ARGIA-n, orain "etsaiari jokia egiten diozuelako", gero "PNVkoak egin zaretelako" eta hurrengoan "terroristen alde" egiteagatik. Batzuk badoaz, beste batzuk badatoz eta joandako batzuk ostera datoz. Eta joan-etorri horietako bakoitzak -tartean irainik ez bada bederen- merezi du errespeturik handiena, une batez gure zutoin izan delako eta joan-etorria edonoren eskubidea delako, edonondik edonora.

2008ko krisialdian behin baino gehiagotan pentsatu genuen olatutzar hark azpian harrapatuko gintuela. Hainbat arrazoiengatik urte txarrak izan ziren harpidetzetarako, baina haren bueltan, 2012-2015etik aurrera iparra findu genuen, eta haize haien bultzadan gatoz gaurdaino, azken urte luzeetan harpidedun gehiago eginda galduta baino. 1990eko hamarkadaren hasieran edo 2000ko urteetan nekez pentsa nezakeen halakorik, eta gaur egun ere hainbatetan harpiduraz entzuten ditut lankideek dakartzaten datuak. Burua hautsi beharko dugu altxor horri eusteko, bai horixe.

Europar iraultza egin eta Europako Alderdi Komunista Euskal Herritik eraitkitzea sinesgaitza eta harrigarria iruditzen zait. Baina gaur egunetik begiratuta, horren ulergaitza da duela ez hainbeste ezker abertzaleak independentzia eta sozialismoa lortuko zuela sinestea, are gutxiago bide horretan Espainiako Estatu armez horretara behartuta. Kontua da hori uste zutenek haien arrazoiak zizutela hori pentsatzeko, eta egungo komunista gazteek eurenak dituztela. Nire ustez, kazetariaren lanetako da arrazoi horiek irakurlearengana eramatea, hark bere heldutasunetik balora eta bere ondorioak atera ditzan. Informazioak beti egingo gaitu helduago, libreago eta burujabeago. Desinformazioak eta zentsurak gure pentsamendua eta askatasuna kamusten dute. ●



%20

baino ez dira gizonezkoak, ikastetxeetako guraso eskoletako kideen artean, Katalunian. Gurean ere agerikoa den errealitatea islatzen dute datuek: guraso elkarteetan, eskolako bilera eta zereginetan, gurasoei zuzendutako tailerretan... emakumeak dira gehiengoak.

61

pertsona hil dira CAFen amiantoarekin kontaktuan egoteagatik, duela 23 urte enpresa horrek mineral hori erabiltzea debekatu zuenetik.

Amiantoa kentzeko Europako protokoloak berritzeko eskatu dute langileek.

%34

pertsona gehiago atxilotu zituzten iaz paperik gabeak atxikitzeko Hendaiako erretentzio zentroan, gehienak Aljeria, Maroko eta Tunisiakoak.

“Kaleko salmenta aurrera eramaten utz diezagutela aldarrikatzen dugu”

BOUBACAR DIOUF

Mbolo Moya Doole Bilboko kale saltzaileen elkarteak deituta, elkarretaratzea egin dute, manteroen aurkako arrazakeria eta indarkeria poliziala salatzeko.

ARGIA.EUS (2024-05-02)



“MUTUALITATEEK OSASUN SISTEMA PRIBATIZATZEN ETA NEGOZIO BIHURTZEN DUTE”

Gizartea kontzientziatzeko kanpaina bat abiatu dute LAB, CGT, STEILAS, ESK, CNT eta LSB-USO sindikatuak, Nafarroako Osasun Plataformak eta Osasun Publikoaren Aldeko Herri Plataformak.

2024-05-03

“Interesgarriena Mirande gozatzea da, berarekin ados egon behar izan gabe”

JOSU MARTINEZ

Zine zuzendariak *Mirande*, film bat egiteko zirriborroa dokumentala eskaini du Ziburun, Ziburuko Azokaldiaren egitarauaren barnean.

ARGIA.EUS (2024-05-02)



Norbera izatea ahaztu



DIANA FRANCO

Oso gogoko dut zientzia fikzioa, genero honetan istorioak oso modu aldrebesean kontatuak izaten badira ere. Fikzioa erabiliz, dugun errealitate konplexua azaltzeko edota eraldatzeko modu berriak lantzen dira. Ocativa E. Butler zientzia fikziozko idazleak, elkarrizketa batean, idazteko trebezia izateko idazketa lantegiak hartzea oso ongi etorri zitzaiola esan zuen. Nire herrian holako lantegi bat suertatuenez, izena eman dut. Bertako irakasle Miren Amurizak gomendio bat partekatu du: idaztea entzutea dela, eta horretan nabil, dena ondo entzuten, nire barruko mundutik apur bat irteten. Entzute horretan, Spidermanen pelikuletako bat ikusten nengoela, Octopusi honakoa entzun nion esaten bere burmuinean txertatuak zituen tentakulu bionikoak deskonektatu zizkiontenean: "Ahaztua nuen ni izatea zer zen". Askotan izan dut sentimendu hori, nire bizitzaren kontrola galtzearen sentsazioa, batez ere denbora faltari oso lotuta. Denborarik gabe, automata baten gisan ibili izan naiz bizitzako zenbait alditan.

Baina Octopusen esaldi horrek oraingoan beste leku batera eraman ninduen, gaur egun adimen artifiziala erabiltzen dugun moduetara, esperientziatik aldentzen gaituena. Ez dut argi erosotasunagatik, dibertsioagatik, segurtasun ezagatik edo aldagai horien guztien nahasketagatik ematen den dinamika hau, baina zenbait pertsonen adimen artifizialari dena galdetzeko joera dutela hauteman dut: zein arropa jartzea gomendatzen didazu gaur? Zein bazkari egin dezaket titudan elikagai hauekin? Zer nolako plana da aproposa eguraldi honekin? Zein da entzun behar dudana musika? Zein da komeni zaidan komuneko papera?

Dinamika honek adimen artifizialaren esperientzian oinarritutako bideak esploratzeko aukerak zabaltzen dituen bitartean, bizitzarako garrantzitsuak diren zenbait esperientziatik aldentzen gaituztela uste dut, hala nola erabakiak hartzetik datozen porrotak, arrakastak eta ikasketak. ●



Lapurreta adimentsua

AXIER LOPEZ

AEBetako zortzi egunkarik salaketa bat batera aurkeztu dute Adimen Artifiziala garatzen ari diren bi enpresa nagusien aurka. Biak estatubatuarrak dira eta oso ezagunak: OpenAI eta Microsoft. Komunikabideek argudiatu dutenez, multinazional teknologiko horiek "milioika artikulua eta albiste lapurtu dituzte eta lapurtzen jarraitzen dute", egile-eskubideek babestuta egonik ere, baimenik eskatu gabe eta ordaindu gabe. Esan gabe doa, datu lapurreta hori guztia ChatGPT eta Pilot gisako Adimen Artifizial sortzailearekin lotutako tresnak entrenatzeko bideratzen ari direla.

Salaketa jarri duten zortzi egunkariak enpresa berekoak dira: Alden Global Capital, AEBetako egunkarien bigarren argitaratzailearik handiena. Haren jabetzakoak dira *The New York Daily News* eta *The Chicago Tribune*, beste askoren artean. Gisa horretako salaketak izan dira aurretik, adibidez esanguratsuenetako izan zen *The New York Times* egunkariak iazko urtearen amaieran jarritakoa, "lapurreta eredu" bera argudiatuta. Areago, urtearen hasieran, AEBetako hainbat hedabidek, hala nola *The New York Times* berak eta CNNk, zenbait programazio kode gehitu zuten beren webguneetan, OpenAIren GPTBot-en web-arakatzaila blokeatzeko eta, horrela, haien edukia automatikoki harrapatzea saihesteko.

"Microsoftek eta OpenAIk kazetarien, editoreen eta oro har egun-

karien, bereziki tokikoen, lanaren emaitza besterik ez dute hartzen, hori guztia langile horienganako inolako begirunerik izan gabe, eta are gehiago, lege-eskubide ororen gainetik", diote salatzaileek.

Hedabideez gain, Adimen Artifizialak sortzaile guztiei eragiten die. Algoritmoen atzean abusu bera baitago: multinazional horiek adimen artifiziala elikatze askotariko materiala lapurtzen dute Interneten. Harrapatzen duten oro datu bihurtzen dute, ondoren prozesatu eta salgai bilakatzeko, zerbait berria balitz legez. Nazioarteko araudia ez dago prestatuta prozesu horretarako, eta multinazional horiek oso jakitun dira horretaz. Zenbait enpresa handirekin kontratuak sinatuta badituzte ere –adibidez OpenAIk Espainiako Estatuan Prisa taldeko hedabideekin hitzarmena dauka haien edukia erabiltzeko–, egun sorkuntza artifizialak nagusiki lapurreta du oinarri. Elisabeth Pérez ilustratzaileak *ARGIA*ren 2.867 zenbakian adierazi zuenez, irudirako Midjourney edo testuetarako ChatGPT lapurretatik elikatzen dira. "Adimen Artifizial sortzailea etorkizuneko tresna dela esaten da, baina bere funtsa da iraganeko sormen lanak lapurtzea. Ez da ez erreminta ezta etorkizuneko ere". Kopiaren kopiaren kulturak bizi gaitu, eta horrek gero eta emaitza eskasagoak emango ditu. ●

Gazaren aldeko kanpaldiak hasi dituzte Euskal Herrian ere

 JON HIDALGO GEREÑU

Mundu osoan zehar unibertsitateko ikasleek Palestinaren alde antolatzen ari diren protestetara batu dira Euskal Herriko ikasleak. Olatua AEBetan abiatu bazen ere, bost kontinenteetan egin dira kanpaldiak eta protestak azken asteetan. Palestinako ikasle mugimenduak mundu mailako altxamendura deitu ditu hezkuntza komunitate guztiak.


Ikasle Abertzaleek deituta, maiatzaren 6an abiatu dituzte kanpaldiak Hego Euskal Herriko hiriburu eta campusetan. Beste antolakunde batzuek bat egin dute kanpaldiekin, hala nola Ernaik edo Astinduk. Beraz, unibertsitateetako mobilizazioetara batu da Euskal Herria ere, Israel Gazan egiten ari den genozidioa salatze eta Palestinako herriarekin elkartasunez. Palestinako hezkuntza komunitateak publikoki eskertu du mundu mailan ikasle mugimenduek Gazari erakutsitako babesa, eta presio neurriekin bat egitera deitu du.

Hezkuntza komunitateak Palestinako haur eta nerabeen alde ere deitu du protesta. Dozenaka ikastetxeetako ordezkariek, ELA, LAB eta STEILAS sindikatuen babesarekin, maiatzaren 10ean Gasteizen egingo duten manifestaziora batzeko deia egin dute.

AEB-AK ABIAPUNTU

New Yorken izan du abiapuntua bost kontinenteetara zabaldu den ikasleen protesta olatuak. Columbia unibertsitateko campusean, Gazako genozidioaren aurkako kanpaldia hasi zuten ehun ikasle inguruk apirilaren 18an, unibertsitateari eskatzeko harreman oro hautsi zezala Israelgo estatu sionistarekin. Hurrengo egunetan AEBetako 60 campus baino gehiagotan abiatu zituzten antzeko kanpaldiak, eta indar izugarria hartu dute protestek. Askotariko aldarriak ikusi badira ere, gehien zabaldu direnak izan dira Gazan su etena lortzea eta unibertsitateek Israelekin dituzten loturak haustea.

AEBetako agintarien erantzuna bortitza izan da. Bi aste eta erdian 2.300 pertsonatik gora atxilotu ditu Poliziak kanpaldiekin lotuta, gutxienez 43 uniber-



GETTY

tsitatean oldartu da Palestinaren aldeko manifestarien aurka. Kazetariei campusetik irteteko agindu diete unibertsitate askotan eta zauritu ugari utzi dituzte Poliziaren erasoek, ikasle zein irakasleen artean. Gose grebak ere abiatu dituzte kanpaldietan.

BIDEN ETA ISRAEL

Joe Biden AEBetako presidentek kanpaldietan ikasleek erabilitako “indarkeria” salatu eta protesta “baketsuen” zilegitasuna defendatu du, nahiz eta protesta baketsu ugari ere Poliziaren oldarraldi bortitzak jasan dituzten. Jarrera antisemiten mantra atera zuen Bidenek prentsaurrekoan, eta campusetan ikasle juduek ustez duten segurtasun eza salatu zuen. Adierazi zuen ikasleen mobilizazioek ez dituztela bere politikak baldintzatuko.

Israelek Nazio Batuen Erakundearen duen enbaxadoreak Hamasekin lotu zituen unibertsitateetako protestak, eta Israelen suntsipena bilatzen dutela salatu zuen. Sionistek gogor jo dute Palestinaren alde mobilizatutako ikasleen aurka. Minnesotan, Californian, Illinoisen eta beste hainbat estatutako unibertsitateetan istiluak eragin dituzte, kanpaldien aurka oldartuta. Askotan, Poliziaren babesarekin.

MUNDU MAILAKO OIHARTZUNA

Denbora gutxian, Indian, Libanon, Australian, Venezuelan, Japonian, Mexikon,

Iraken, Kanadan, Kuban, Turkian, Txilen eta beste hainbat herrialdeetan altxa dira ikasleak Gazako sarraskiaren aurka. Europan ere izan du oihartzuna mugimenduenak. Kanpaldi eta protesta ugari egin dira herrialde askotan, baita errepresio gogorra jasan ere. Alemanian, Berlingo Humboldt unibertsitatean, esaterako, Poliziak ikasle ugari kolpatu eta atxilotu ditu. Frantziako Estatuan ere unibertsitate askotan hasi dira kanpaldiak, eta haien kontrako jarrera erakutsi du gobernua. Parisko eskualdeko agintari Valérie Pécressek, adibidez, finantzazioa eten dio Sciences Po unibertsitate ospetsuari, bertan mobilizazioak abiatzean. Aurore Bergég, Frantziako Genero Berdintasun eta Diskriminazioaren Aurkako Borrokaren ministroak, esan du Gazaren aldeko manifestariak “ezjakinak edo antisemitak” direla. Espainiako Estatuan ere kanpaldiak abiatu dituzte ikasleek, Valentzian eta Madrilen, adibidez.

PRESIOA ALDERDI DEMOKRATARI

Garrantzi berezia dute AEBetako mobilizazioek, Israelentzako ezinbestekoa baita Bidenen babesa genozidioarekin aurrera egiteko. Nir Barkat Israelgo Ekonomia eta Industria ministroak ohartarazi du ikasle estatubatuarren mobilizazioak “mehatxu existentziala” direla estatu sionistarentzat, eta AEBetako iritzi publikoak haien biziraupenean duen garrantzia nabarmendu zuen. ●

EKIALDEKO AFRIKAN, OZTOPOAK OZTOPO, EURITE ALDAKETEI EGOKITZEKO EKIMENAK MARTXAN

Etiopia, Somalia eta Kenyako hainbat eskualdetan ia hiru urtez euririk gabe egon ondoren, azkenaldian urpetuak izan dira. Sasoi kontrasteak ohikoak izanik ere eskualde hartan, klima aldaketarekin larritzen dira, eta euriak hobeki baliatzeko hainbat tokiko ekimen garatzen ari dira bertako laborari eta ingeniariak, laborantza eta bideak elkarrekin erresilienteagoak bihurtzeko. Hainbat krisiri aurre egin beharrez, baldintza bereziki prekariotan ari dira, baina lehen emaitzak poztekoak dira etorkizunari begira.

 NICOLAS GOÑI

Aspaldidanik erran ziguten klimatologoek: atmosfera berotu ahal, gero eta muturrekoagoak izanen dira euriak, hau da, mutur batean lehorte gogorrago eta luzeagoak, eta bertzean eurite eta uholde handiagoak. Hain zuzen, hala gertatu zaie azken urteotan Ekialdeko Afrikako. 2020an Etioipian, Somalian eta Kenyan oti inbasio historikoa pairatuz gero, lehorte hasi zen. Satellite datuak ditugunetik, eskualdean inoiz izandako lehorte gogorra izan da eta 2023 arte iraun du, milioika pertsonari gosea pairaraziz. Iaz, ARGIA-ren 2.825 aleko *Ozeanoak inoiz baino beroago ditugula, egoera ezezagunetara eraman gaitzake El Niño fenomenoak* erreportajearen erraten genuen El Niño fenomenoak eurite handiak Ekialdeko Afrikara ekarri zitzaizkeela, eta hori litzatekeela beharbada fenomeno horren eragin positibo bakarra, 2020ko urritik zirauen lehorte arintzea, alegia. Euriteak bai gertatu dira, baina lehorte arindu baino gehiago egin dute: 2023ko azaroan uholde handiak izan dira Somalia eta Etiopiako hainbat eskualdetan eta aurtengo apirilean Kenyan eta berriro Etioipian, ehundaka mila pertsona kaltetuz, tokian tokiko uztak lokazpetuz –beraz jadanik larria zen egoera humanitarioa gehiago okertuz–, eta hainbat azpiegitura andeatuz. Azpiegitura horietarik bideak izan dira kaltetuenak, bereziki bide gehienak asfaltatu gabe direlako. Jatekorik gelditzen ez zaien eta laguntza humanita-

rioren zain direnentzat, bide ibilgarriak izatea hil ala biziko kontua da. Kenya hegoaldeko Makueni eskualdean bide ingeniaria den Michael Malukik eufemismoz laburbiltzen du egoera: bideak eta euriak elkar gurutzatzen dutenean, arazoak datoz. Batetik, urak bideak higatzen dituelako, edota ibilgailuak hikatzeko moduko lokatza sortzen duelako. Baina, alderantziz ere, bideek hainbat modutan uraren zikloa oztopatzen dutelako: tokian tokiko ura blokeatu eta norabide desegokira eraman, jariatze-ura eta jalkinak pilatu, azal azpiko fluxuak aldatu eta uholde-ereduak ere aldatu, toki batzuetan oke-rragoak eginik. Arazo gurutzatu horiei konponbidea eraikitzen ari dira Maluki eta Ekialdeko Afrikako hainbat ingeniari eta laborari.

URA HOBEBI BIDERATZEKO BIDEAK

Bideak eta euriteek eragindako arazoei elkarrekin aurre egiteko ekimen nagusia da Green Roads for Water (Urarentzako Bide Berdeak) Herbehereetako Meta-Meta izeneko kontsultoriak bultzatutakoa. Herbehereetan ingeniari hidraulikoak historia luzea izanik ere, berez kontsultoria horren jatorrizko ideia ez dator Flevoland probintziatik, baizik eta Balutxistan eta Sindh eskualdeetatik. Han duela bortz edo sei mila urte-tik gabarband izeneko harrizko terraza moduko urtegi apal eta luzeak eraikitzen zituzten, montzoi sasoiaren sorturi-

ko erreka iragankorren ura eta jalkinak bertan harrapatzeko eta laborantzarako baliatzeko. Behaketa hortik hasita, galdera da bideak nola diseinatu edo birmoldatu, gabarband horien abantailak izan ditzaten, kontuan harturik gaurko lurrazalaren %20 bide batetik kilometro batera dagoela, populazioaren gehiena bertan bizi dela, eta ekosistema lurta-rrak duela 6000 urte baino askoz zatikatuagoak direla, hain zuzen, bideen eraginez nagusiki.

Tokian tokiko baldintzen eta arazoaren arabera konponbide mota asko badago: gune lehor eta harritsu batean bide bat molda daiteke urtegi gisan funtziona dezan, bere bazter batean ura eta jalkinak atxikiz; gune higatuetan bideak sestrakurben arabera eraiki daitezke, bertatik ura mantsoago isuri dadin eta lurtean ur gehiago sar dadin; ordokietan bideak drainakorrak egin daitezke eta bidetik isurtzen den ura harrizko egituren bidez bideratu soroak ureztatzerako, baserrigunetako putzuak betetzeko edo akuiferoak elikatzeke; batzutan sinpleki zuhaitzik ez dagoen tokietan bidea goititu eta bide bazterretan zabalera nahikoan zuhaitzak landatu daitezke, zuhaitzek bidearen hautsa bertan atxikitzeke eta bidearen azpiko lurra egonkortzeko, eta abar.

Hainbat adibide aurkitu ditzakegu *Guidelines for Road Infrastructure in Support of Water Management and Climate Resilience* (Uraren Kudeaketa eta



TERRAZA SISTEMA TRADIZIONALA Tigray eskualdean osaturiko terraza sistema tradizionalak ikusgai argazkian. Eurien ura bertan atxikitzeko sistema gehiagoren lantzen hasi ziren 2015ean, laborantzaren etekineta emaitzak onak lortuz.

A. DAVEY

Klimaren aurreko Erresilientzia Laguntzen duten Bide Azpiegiturako Jarrabideak) izeneko txostenean. MetaMetak dioenez, konponbide guzi horiek *low-tech* dira, horietarik asko laborariet eta ingeniariet berek probatu eta garatu dituzte, eta askotan nabaritu da gauza oso xumeek diferentzia handia egin dezaketela.

HONDAMENDIEN GAINETIK, URA BETI BIZITZAREN BERME

Kenyako Kitui konderrian horrelako sistemetan inbertitzen den shilling bakoitzeko, laborantzaren etekinak 2,5 shillingez igotzen direla kalkulatu dute. Hots, uraren zikloarentzat eta bideen iraunkortasunarentzat mesedegarria izateaz gain, tokiko ekonomiarentzat ere abantaila garbiak ditu. Michael Ma-

lukik dioenez, gaur egun bertako bideen %5 eta %10 artean arau horien arabera moldatu dituzte. Kenyan eta Somaliland eskualdean garatzen hasi baino lehen, ingeniariak horren lehen maila handiko saioa Etiopia iparrean egin zuten. Han urtero laborariak auzolanez ari dira terrazak berreraikitzen eta ureztatze kanal zaharrak garbitzen. 2015ean hasi ziren auzolan hori "urarentzako bide berdeak" arauen arabera egiten, eta ohi-ko lanaz gain, lubaki eta putzu berriak sortzen eta bazterbideak prestatzen, ura bideetatik arto eta garagar soroetara eramateko. Mek'eleko unibertsitatean geologian ingeniaria den Kifle Woldearegayen arabera, emaitzak poztekoak dira: bide horien hurbileko maila freatikoa bi metroz igo zen, eta inguruko baserrien produktibitatea ere %35

emendatu zitzairen. Mek'ele ezaguna ez bazaizue, Mek'ele hiriburua duen eskualdearen izena beharbada entzun duzue: Tigray, 2020tik 2022ra bertan iragandako gerrarengatik. Urte haietan lehortek eragindako arazoei gehitu zitzaizkien gerrak sorturiko gabezia, suntsiketa, hilketak eta bortxaketak, ARGIAren 2.746 aleko *Nobeldun sarraskia* erreportajearen Axier Lopezek azaldu bezala. Somalian ere egoera politikoa ez da poztekoa: 1992an piztu zen gerra zibilaz geroztik, estatuari tokian tokiko mafiak eta talde islamistak gailendu zaizkio. Testuinguru ezin zailago horietan dabilta Ekialdeko Afrikako hainbat laborari, artzain eta ingeniari, oztopoak oztopo, eurien ura lurrean hobe gordetzeko beren lurraldea moldatzen, lurraldearen etorkizuna eraikitzen. ●




ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani 23 · 20004 Donostia

T. 943 420 624

zinkunegioptika.com



Patricia López Arnaiz

HAMAIKA BIZITZA BAKAR BATEAN



AMORRUA, HIRA ETA MENDEKU NAHIA EMAKUME BATEN MOTORRAK ERE IZAN DAITEZKE



Nina iragarritako *señorizidio* baten kronika da –Irantzu Varela-ren terminoa erabiliz–. Pantaila handira orain iritsiko den filmak kontatzen du nola 30 urteren ondoren emakume zauritu bat herrira itzultzen den eskopeta batekin, etengabeko hileko moduko batek jota, gaztetxo zelarik sexu abusu larriak egin zizkion gizona hiltzeko. Patricia López Arnaiz da emakume hori, *Nina*, *Cocó*ren ama *20.000 especies de abejas*-en edo *Anerena Ane* filmean ere. Barne indarra eta hauskortasuna begi pare batean bilduta.

 REYES ILINTXETA  JOSU SANTESTEBAN / ARGIA CC BY-SA

Interpretazio maratoi moduko bat izan da *Nina*-ren filmatzea?

Zalantzarik gabe. Oso lan gogorra izan da. Zauri ikaragarria duen pertsonaia da. Etengabeko sufrimendu horretan une kritiko batera iristen da non mendekurako grina bizia sortzen zaion, ezer galtzekorik ez duelako jada. Herrirako itzulera horrek jendearekin eta lekuekin berriz jarriko du harremanean. Ez dira soilik oroitzapenak, lotura fisikoak baizik. Herrira itzultzen denean Pandoraren kutxa zabaltzen da. Sekuentzia bakoitza zauriaren gainean berriz piko egitea da.

Bost minutuko tentsioz beteriko lehen eszenak jada erakusten du nolakoa izanen den filmaren estiloa...

Lehen planotik oso goian hasten gara. Normalean pertsonaien aurkezpen bat izaten da eta gero temperatura emozionala igotzen joaten da pelikulak aurrera egin ahala, baina hemen ez.

Andrea Jaurrieta zuzendariak eta biok asko landu genuen hori, lehenago zer gertatu zen argi edukitzeko eta emozioekin konektatzeko.

Testu gutxirekin gauza asko kontatzen duzu, ezta?

Gure lana da pertsonaiaren uneko egoera bizitzea, testua izan ala ez. Nire pertsonaiak ez du atsedetik film osoan. Oinazea eta odola beti daude presente. Ez dago zauri hori ukitzen ez duen plano bakar bat ere.

Iazko maiatzean amaitu genuen sei asteko filmazioa. Oso gustura izan nintzen lan talde zoragarriarekin, Mundakan, baina emozionalki oso lan sutsua izan zen eta horretaz ohartu nintzen bukatutakoan. Etxera iristean faktura iritsi zitzaidan. Bat-batean bajoi itzela izan nuen. Beste filmaketa batzuk izan ditut gogorrek, baina ez hau bezainbestekoak. Egunero hamaika ordu ematen baduzu sexu abusuen egoera horretan sartuta, iruditegi hori elikatzen, higadura emozionala oso sakona da. Sendatze tarte bat behar izan nuen hori dena garbitzeko.

Nola prestatzen duzu pertsonaia?

Lehenik gidoiaren analisi zehatz eta sakona egiten dut. Ideiak idazten noa



Patricia López Arnaiz

GASTEIZ, 1981



Aktorea. Publizitatea eta Harreman Publikoak ikasi zituen EHU, Leioan, eta 25 urte zituela antzerki eta interpretazio ikastaroak egiten hasi zen Gasteizko Ortzai Antzerki Eskolan. 2010ean *80 egunean* filmean parte hartu zuen eta 2017tik aurrera *Baztango trilogian* Amaia Salazarren ahizparen papera egin zuen. Gerortik ez da geldirik egon. 2021ean Goya saria irabazi zuen *Ane*-rekin eta aurten hautagaia izan da *20.000 especies de abejas* lanarekin. Denera hogei filmetan parte hartu du eta zortzi telesailetan. Antzerkian *La casa de Bernarda Alba* egin berri du Alfredo Sanzol iruindarraren zuzendaritzapean eta beste iruindar batekin, Andrea Jaurrietarekin, lan egin du *Nina* filmean. Malagako Zinemaldian estreinatu eta Kritika Epaimahaiaren Sari Berezia jaso ostean, maiatzaren 10ean iritsiko da zinema aretoetara.

hainbat zutabetan eskema bat eginez. Gero sintetizatzen dut, zer gertatzen den ondo ulertzeko eta hori dena egin ondoren testua ikasten dut.

Analisi denbora horretan guztian irudimenarekin lanean aritzen naiz aldi oro. Autoa gidatzen edo txakurrarekin mendian nabilenean ari naiz horrekin bueltaka. Gustatzen zait la-saitasun aski izatea sare moduko bat hedatu eta han biltzeko pertsonaia eraikitzeke balio dezakeen guztia: irakurgaiak, musika...

Entseguetan hasi baino lehen dena prest izatea eta proposamen bat eramatea gustatzen zait. Gero hasten da zuzendariarekiko elkarlana eta hor lengoaia komun bat aurkitzea da garrantzitsuena. Giza izaeraren arabera idatzita dagoenean, testu batek ez ditu soilik egoerak eta gertaerak kontatzen, baizik eta pertsonaien bizipenak modu koherentean. Hori dena oso garbi ez badago, zuk zeuk, aktore moduan, falta dena asmatu behar duzu.

Nina-ren kasuan jantziek laguntzen dute.

Jakina! Andreak badu oso gustu ona eta alde horretatik niri oso originala eta desberdina iruditzen zait film hau. Badakar proposamen estetiko oso berezia eta indartsua. Oso piktorikoa da. Kolore gorriak, adibidez, berebiziko garrantzia du. Odolaren eta jantzien gorria. Oso zinematografikoa da eta pertsonaia ikoniko bat lortu du. Paisaiak ere ikusgarriak dira. Zineman ikusteko pelikula da argi eta garbi.

Pelikulan oso ongi ikusten dira abusuak zurtzeko patriarkatuaren zenbait justifikazio mekanismo: gu biok oso maiteminduta geunden... gure amodio historia oso polita izan zen...

Hala da. Nire ustez, hemen oso agerian gelditzen da bortizkeria kasu bat dela. Kontsentimenduaz hitz egin daiteke baldintza berdintasuna dagoenean, baina pertsona bat haur edo gaztetxo bat denean, adibidez, harremana erabat asimetrikoa da, adingabe batek ez baitu bizi-ibilbide bat egina aski baliabide emozional izateko eta era-

baki libre bat hartu ahal izateko. Eta are hauskorrago bihurtzen da abusua egiten duena figura boteretsu bat denean adin, eskarmentu, estatus sozial edo intelektual handiagoak dituelako.

Espero dut film honek balio izatea delitua zer den identifikatzen laguntzeko. Zorionez, aurrerapausoak ematen ari gara eta gauzak aldatzen ari dira azken urte hauetan. Hori oso ongi ikusten da, adibidez, duela hiru urte Vanessa Springora idazle frantziarrak plazaratu zuen *El consentimiento* (Onespena) liburua. Hor kontatzen du nola Gabriel Matzneff 50 urteko idazle ospetsuak seduzitu zuen berak 14 urte zituenean. Pederastra ospetsua zen, jendaurrean eta bere liburuetan neskak eta mutikoekin oheratzen zela kontatzen zuen harro, eta bere prestigioagatik dena baimentzen zitzaion. Pelikula honetan ere neska oso maiteminduta sentitzen zen, hasieran behintzat, baina horrek ez du justifikatzen abusua.

Kontsentimenduaz hitz egin daiteke baldintza berdintasuna dagoenean, baina pertsona bat haur edo gaztetxo denean, adibidez, harremana erabat asimetrikoa da"

Herriaren isiltasun konplizea ere kritikatzeko da film honetan.

Bai. Denek egia jakin arren inork ez zion neskarri lagundu eta inork ez zuen ezer esan gizon ospetsuaren aurka. Horrek adierazten digu zenbat bortizkeria kasu baimentzen dugun nahita edo nahi gabe. Horregatik, garrantzitsuena da erasotzailak eta erasoak identifikatzen ikastea.

Ingurune artistiko kulturaletan batzuetan gertatzen da liluramenduak zaurgarritasuna sorrarazten duela.

Espainiako zinemagintzan jazarpenik sumatu duzu inoiz?

Salaketak agertzen ari dira. Zinemagintzaren alorrean hierarkia nabarmena dago eta, horretaz gain, lan egiteko behar handia. Horrek guztiak leku zaurgarri batean jartzen ditu emakume asko. Hala ere, duela 40 urte normaltzat hartzen ziren portakera batzuk orain ez dira onartzen eta biktimizek, ausardia handiz, salatzen dute, haien lan etorkizuna jokoan jarri arren.

Zein da film honen mezu nagusia?
Hau western bat da. Mendeku gog-

sea da protagonista mugiarazten duena. Gertatzen dena da mendekua beti gizonek bereganatu duten zerbait dela. *Nina* José Ramón Fernándezen izen bereko antzezlanean oinarrituta dago, eta hori, aldi berean, Chejoven *Kaioa*-n. Lan horietan barkamena eta maitasuna lehenesten dira, eta film honetan, ordea, mendekua da helburua. Erakusten du emakume batek ere mendekua har dezakeela. Amorrua, hira eta mendeku nahia emakume baten motorrak ere izan daitezke. Ahalduntze ariketa bat da, finean.

Duela gutxi Angustiasen papera egin duzu *La casa de Bernarda Alba* antzezlanean. Loturarik ikusten duzu bi pertsonaien artean?

Bai. Biak dira sexu-indarkeriaren biktimak. Tragedia hau erraietatik ateratzen zaio Lorcarri. Muturreko egoera da. Angustiasentzat Peperekin ezkontzea etxe itogarri horretatik ateratzeko bere azken aukera da, Ninarentzat bezala. Bernarda eta bere alabak dira sistemak bortxaz moldatutako pertsonak, sistema bera betikotzera kondenatuta.

Bernardaren etxeak sistema irudikatzen duen mikrokosmos bat da eta Angustiasek handik eskapatu nahi du, baina ohartu egiten da kanpoan dagoena ez dela askoz hobea. Emakume izanda, ihes egiterik ez dago.

Mundu hobe bat ezin daitekeela lortu pentsatzea frustragarria da ezta?

Jakina, baina hori da pertsona askok munduan bizi duten egoera esklabotza, pobrezia, prekarietatea edo indarkeriarengatik. Hori hala da eta ez da beste alde batera begiratu behar.

Gogorik zenuen antzerkira itzultzeko?

Bai, handia. Azken finean, nire jatorrira itzultzeko aukera bat izan da eta hontan zergatik nagoen birpentsatzen lagundu dit. Oso hilabete politikak izan dira otsailean estreinatua genuenetik, baina amaitu dugu jada. Madrilen bi hilabetez aritu gara eta beste bost hiritan egon gara, tartean Iruñean, bertakoa delako Alfredo Sanzol zuzendaria. Oso ederra izan da dena eta orain berriro zinema egiteko beharra sentitzen dut.

Oso pertsonaia intentsuak egin dituzu, bereziki azken sei urte hauetan. Zergatik bilatzen zaituzte, zure ustez?



Hori zuzendariak esan beharko lukete. Andreak esan zidan hauskortasuna eta indarraren arteko nahasketa zela nahi

zuen. Niri western bat egitearen ideiak harrapatu ninduen. Kode hori esploratzea oso interesgarria izan da, bereziki kode hutsean ez garelako gelditu. Western bat egitera jolastu gara, baina protagonista den pertsona horri barrutik zer gertatzen zaion ikusiz.



Azken hitza

WESTERN BAT

"Marmitako edo Matxixako western deitu diote *Nina* filmari. Mundakan filmatu da, baina existitzen ez den herri batean kokatzen da istorioa. Nahasketa bat da. Gidoia irakurri nuen Errioxako Ceniceror, nire aitaren herria, etorri zitzaidan burura. Kasinoa, orkestra, prozesioa... txikitako udak gogoratu nituen. Baina Andreak kostaldean kokatu du. Itsasargiaren argi-sorta hori, aldika gauzak erakusten eta ezkutatzen dituena, irudi polita da. Metaforaz betetako filma da, pertsonaia nolakoa den eta zer bizitzen ari den irudien bidez erakusten duena".

Erabaki gogorra izan zen zuretzat aktore profesional bihurtzea?

Antzerkia ikasten 25 urterekin hasi nintzen, baina nire asmoa ez zen profesionala izatea. Nik publizitatea ikasi nuen Leioan, baina ez zitzaidan gustatu eta bukatu nuenean joan nintzen taberna batean lan egitera. Hainbat tokitan aritu nintzen, besteak beste ikastola bateko jantokian monitore gisa. Beti izan dut barruan dudana erakusteko beharra eta horretarako hainbat bide arakatu izan ditut.

Gaur egun nire agentea denak eskolako antzokian ikusi ninduen eta proiektu batean lan egiteko deitu zidan. Horrela Moriartiren *80 egunean* filmean parte hartu nuen, baina gero lanean eta ikastaroak egiten jarraitu nuen. Tarteka iristen zitzaizkidan gauzatxoak, esaldi bateko pertsonaiak. Egiten nituen, baina ez nuen bereziki gozatzen. Ez nekien lanbide gisa gustatuko zitzaidan ala ez. 36 urterekin, duela zazpi urte, bat-batean Baztango trilogiarako egin nuen proba

bigarren mailako pertsonaia baterako eta hor konturatu nintzen lan hau benetan gustatzen zaidala. Pertsonaia bat egin behar nuen eta ikusi nuen ikasitako guztiak balio zidala horretarako. Eskatu nuen eszedentzia lanean, badaezpada ere, baina hainbat lan eskaintza hasi zitzaizkidan etortzen eta azkar utzi nuen. Orduan bidali nuen mezu bat baja boluntarioa eskatzeko eta hura une goangarria izan zen. Atzera bueltarik gabea.

Oso urte biziak izan dira. Ordura arte niretzat lana diru iturri bat izan zen eta orain, aldiz, nire bizitzaren erdigunean dago. Dena antolatu behar duzu ardatz horren inguruan. Dena aldakorra da. Errutinarik ez dago.

Eta zer moduz daramazu aldaketa?
Uste dut nire izaeran ba dela zerbait horrekin zerikusirik duena, baina badago ere iturrira itzultzeko beharra. Arabako herri batean bizi naiz eta, lan



eta lan artean behar dut etxera itzuli eta familiarekin eta nire jendearekin egon. Tarteka erretiroa behar izaten dut. Kanpora ateratzen zarenean estimulu asko dago. Esposizioa ikaragarria da. Zaila da imajinatzea zinemaldietara joatea edo promozio lana egitea zein nekagarria den. Errodaje batek baino gehiago higa-

tzen zaitu askotan. Egia esan, gainezka egiten dudanean herrira joan eta han sendatzen naiz. Bestalde, oso lan polita da eta berehala pizten zait ilusioa proiektu berriak iristen zaizkidanean.

Nola ikusten duzu Euskal Herriko zinemaren egoera?

Momentu oso onean dago. Filmazio piloa egiten dira eta, horretaz gain, sortzen ari den hemengo zinema mugimendua oso interesgarria da. Kalitate handia dago eta euskararen presentzia ari da normalizatzen pantaila handian. Horrekin muga handi bat gainditu da. Azkenaldi honetan bistan da kanpoko jendeak gogo daukela hemen egindako zinema ikusteko. Talentu itzela dago.

ma ikusteko. Talentu itzela dago.

Etorkizun hurbila nola dakusazu?

Maiatzaren 20an pelikula berri bat hasiko gara filmatzen Euskadin eta Madrilan, eta horretan protagonista izango naiz. Eta udan atsedean hartzeko asmoa dut. ●



GIPUZKOA BERTSOTAN 24

2. FASEA

www.bertsozale.eus
www.bertsosarrerak.eus

Maiatzak 25

ANTZUOLA

Torresoro Eraikina

PASAIA

Juanba Berasategi Espazioa

Maiatzak 26

ALEGIA

Zinema Aretoa

USURBIL

Sutegi Aretoa

Ekainak 1

ATAUN

Herri Antzokia

ELGETA

Kafe Antzokia

Ekainak 2

HERNANI

Biteri Aretoa

SORALUZE

Herri Antzokia

Antolatzailea:



Laguntzailea:





Israel ahulduta eta Iran boterea hartuta



ASIER BLAS MENDOZA
EHU-KO IRAKASLEA

Azkeneko hamarkadan Frantziak, Erresuma Batuak eta AEBek Siria inbaditu zuten nazioarteko legedia hautsita. 2024an oraindik Washingtonek Siria okupatzeko dozena bat base militar inguru ditu eta herrialdearen petrolioaren zati handia lapurtzen du. Israelek Siriako eta Palestinako lurraldeak okupatzen ditu eta egunero Palestina, Siria edota Libano bonbardatzen ditu. Tel Avivek Gazan genozidio bat du martxan. AEBek Iraken misio diplomatikoan zegoen Qasem Soleimani jeneral irandarra erail zuten 2020an. Israelek Iranek Damaskon duen enbaxada bonbardatu eta hama sei hildako eragin zituen apirilaren 1ean. Noski, NATOren *arauetan oinarritutako munduak* ez du esan nahi Mendebaldeak nazioarteko legeak ezin dituenik apurtu, baizik eta besteek ezin dituztela hautsi. Horregatik, *Mundu libreko* (sic) hedabideak eta agintariak asaldatuta agertu ziren apirilaren 13-14ko gauean Iranek, nazioarteko legedia hautsi gabe, Israelen kontrako drone eta misil eraso neurtua egin zuenean.

Teheranek operazio militarra presarik gabe prestatu zuen oihartzun propagandistiko handiena lortzeko. Israelek Irani etxean eta kanpoan maiz eraso egiten dio probokatzeko. Tel Aviven ametsa AEBen eta Iranen arteko gerra bat da. Baina Iranek ez du nahi, *pazientzia estrategiakoa* da bere strategiaren leloa; intentsitate baxuko higadura-gerra luzea nahiago du, Israelen gaitasun militarrek ahuldu eta bere aliatuen babesa ahultzeko.

Washingtonek bere armadarekin gerrak herrialde ahulen kontra egiten ditu soilik, ondotxo daki Iran plater handia dela eta erraz trabatu ahal izango litzaiokeela

Logika horretan Iranek Israelen kontra eginiko kontraerasoa mugarria izan zen egun Mendebaldeko Asian bizi den gatazka geopolitikoan. Teheranek alde aurretik iragarri zuen *showak* ondorioak izan ditu. Erasoak Israelgo populazioaren artean ordu batzuetako estres psikologikoa sortu zuen. Horrek epe luzera efektua du. Israelek etengabe kolono berriak behar ditu arabiarren presio demografikoari aurre egiteko, zentzu horretan, Tel Avivek Mendebaldeko zentrotik eta periferiatik populazio pobrea erakartzen du bizitza material hobetoaren promesarekin, baina segurtasun arloan pitzadura handiak badaude, kolono potentzialek beraien herrialdeetan geratzea erabaki dezakete.

Teheranek inolako heriotzarik sortu gabe kolpatu zituen Israelek Iraneko en-

baxadaren aurkako erasoan erabili zituen bi base militarrek, eta frogatu zuen Israel bonbardatu dezakeela. Baina, Mendebaldearen arabera, Israelgo, AEBetako, Erresuma Batuko, Frantziako eta Jordaniako indar armatuek drone eta misilen %99 geldiarazi zituzten, hori bai, diru asko xahutzearen truke. Halere, Iranek eraso zabal eta masiboa eginez ezagutu ditu Israelek, AEBek eta horien aliatuek eskualdean dituzten misilen aurkako teknologien funtzionamendua eta lokalizazioa. Irandarrek ez zuten erabili Israelek ezagutzen ez zituen armarik, baina orain Teheranek badaki Israelen misilen aurkako defentsa-sistema nolakoa den eta Jordaniako eta AEBetako instalazioak non dauden. Halaber, erasoak burutzeko eta erreazioetarako denborei buruz informazio askoz gehiago du.

Bitartean, Israelen erantzuna oso mugatua izan da AEBek horrela nahi izan dutelako. Tel Avivek partida galdu du eta, oro har, liga maldan gora jarri zaio. Washingtonek badaki Israel Iranekin gerrara joango balitz berak hartu beharko lukeela borrokaren zama nagusia. Izan ere, Israelgo populazioa hamar aldiz da Iran, eta ekonomia laukoiztu egiten du eros-ahalmenean. Horrez gain, Teheranek Txina eta Errusia bezalako aliatu indartsuak ditu, gutxienez babes ekonomiko eskainiko lioketenak. Washingtonek bere armadarekin gerrak herrialde ahulen kontra egiten ditu soilik, ondotxo daki Iran plater handia dela eta erraz trabatu ahal izango litzaiokeela. ●

Hamaika



JOSEBE BLANCO
ARTZAINA



DOM CAMPISTRON

Ez dakit zure herrira helduko den *Hamaika* diziplina anitzeko proiektu artistikoaren erakusketa.

Artelanekin batera, hamaika lekukotasun. Bertan denetarik dago: beldurra, mina, amorrua, esperantza, etsipena, indarra... Maitasunez idatzitako testigantzak. Garondoan mehatxuaren hatsa sentitzen duenaren itomenaz bizi diren pertsonenak. Aerosorgailuen mamuekin bizi dira, denak ere.

Batzuek isilpean gordetzea nahiko lituzketen horietaz aritu ginen hiru emakume erakusketaren aurkezpenean. Entzuleen artean, emakumeak ziren gehienak. Kasualtaterik ez dago.

Zer gertatu zen gure etxeetan makroproiektu eoliko horren berri izan genuenean? Nolako leherketa gertatu zen? Zer hautsi zen lehenago, bihotza ala etorkizuna? Zer oinarri dira sendoagoak, lurra ematen dizkizunak ala alderdienak? Zerk salba zaitzake, neurrira egindako legeak ala justizia poetikoak?

Izaren azpian, malko uholdeak itotzen dira bertan, erreskaterako zodiaka etortzeko inongo esperantzarik gabe. Hortik aurrera mamu izaera hartzen duzu. Koa-

dro zaharrak estaltzeko erabiltzen diren oihalek ezkutatu dituzte bizi dituzun naufragioak.

Saiatzen zara heldulekuak topatzen. Udaletxean. Lagun abokatuaren bulegoan. Interneten. Han, nonbait, bada talde bat. Posta elektronikoak. Deiak. Telegram taldeak. Eta bilerak. Naufragoen arteko bilerak, itsaso arrotz zabalean. Eskerrak heltzen zaituzten esku horiei, ur horietan igerian eta urpekaritzan erakusten dizutenei.

Aldi berean, egun batetik bestera, herrian, zeure bizitza *standby* egoeran sartzen da, ez zaude itzalita, baina ezta *operatibo* ere. Hor, linboan.

Hasten dira zeharkako begiradak, izarapeko naufragoa zarela gogorarazten dizutenak. Ardi beltz sentiarazten zaituzten isilpeko iruzkinak. Derrepentean, ikasi behar duzu gaiaz ezin dela hitz egin, desegokia dela Aste Santuan Loiotik ateraren 1.398 hegaldi horiek kritikatzeari; larrialdi klimatikoaren aurrean politikariek erakusten duten axolagabekeria salatzen Rebeldión Científica taldeak eginitzek bake soziala apurtu egiten dutela. Euskal Herrian dauden makro-

proiektuen kontrako taldeen hitzek eta presentziak egiten duten moduan.

Gerora dator isiltasuna. Muga ikuzezina sortu da bion artean. Usnatzen dituzun mugimenduak zeure buruan baino ez daudela sinestera heltzen zara; bilera eta akordioen emaitzen berri duzun arte.

Bi aldiz hautsi zara, eta bietan milaka pusketatan.

Behin, maite duzun lurraldearen suntsiketaren mamuek emandako kolpeaz. Hautsi egin zaituzte. Zorrotza da mina. *Solastalgiak* batu ditu puskak.

Bigarrean, maite duzun komunitate edo taldearekiko hausturak xehatu zaitu. Birrindu egin zaituzte. Obra-hondakina, emaitza. Hautsa haizeak eraman du, hiletetan bezala.

Eta inork ez dizu erantzuten aspaldian eginiko galderari: bizi dituzun haustura horiek zenbat megawatt balio dituzte? Galdera poetikoa omen da; hots, ez serioa, alferrikakoa.

Eskerrak naufragoen biltzarrak erreskatatuko zaituen.

Eta arteak izara erantzi dizun, behinogoz mamu izateari uzteko. ●



MIKEL OTERO
LEGE BILTZARKIDEA

Etxeko lanak

Hauteskunde-kanpainen arteko tar- te gero eta estuagoan, komeni da XXI. mendeko urte erabakigarrietan sartu garela gogoraraztea. Adibide bakarra jartzearren, ozeanoen tenperatura-errekorrak etengabe gaintitzeak izututa dauzka zientzialariak, eta dagoeneko ez dakite egoeraren larritasuna nola azaldu. Nazio Batuen Erakundearen arabera, 2030erako gure CO2 isuriak erdira jaitea premiazkoa da, baina han- hemengo adierazle baikor bakoitzeko, hamaika ezkor pilatzen zaizkigu. Hori datuak daudenean, zerengatik, harrigarria badirudi ere, gure eremuko azken datu ofizialak 2021ekoak baitira. Informazioa ezkutitzeak arazoa desagerraraziko balu bezala.

Bost urte eta erdi besterik ez seinalatutako 2030. urtera iristeko, baina (ia) dena egiteke. Deskarbonizazio bektore nagusiak identifikatuta daude, baina ez dugu lortzen gorpil onak jarraitzea. Ilustratzearen, Erresuma Batuak 1990etik hona %52ko CO2 isuri murrizketa izan du. Guk, %10 ingurukoa. Alemanian sortzen den elektrizitatearen %60 dagoeneko iturri berriztagarrietatik dator. EAEn, %11 besterik ez. Ipar Europan gas galdaren ordezkatze masiboa egiten ari dira bero punpa sistemen eskutik. Gurean, ia arrastorik ez. Mugikortasun elektrikoan, Europan azken putz den estatutu baten azkenetariko bagoian gaude.

Eztabaida bizantzarretan erdi galduta, blokeatuta, sistema fosila betikotu nahi dutenen barre algarak bizkarrean entzuzenez. Hori pagotxa, diote.

Datorren legealdian gobernua hartuko (omen) dutenek mezu nahasgarria ibili dute ahotan. Antza, trantsizioa antsietaterik eta presarik gabe egin behar da, industria eta hango lanpostuak arriskuan ipini gabe. Ezer ulertu ez dutela agerian jarri dute. Zeren, industria lanpostuak arriskuan jartzeko modurik onena, preseski, trantsizioa mantso egitea baita. Edo norbaitek uste du gure industriak ekoiztutako produktuak Europan saltzeko moduan izango garela behin Europako herrialde nagusienak produktu baliokide baina deskarbonizatuak ekoizten dituztenean?

Egoera ongi ezaugarritu ezean, kolpe handiak datozelakoan nago. Izan klima nahasmenaren eskutik, izan ehun produktiboaren egokitze faltaren ondorio sozio-ekonomikoen eskutik, edo kanpo energia fosilen mendekotasun gaixotiatatik. Etxeko lanak biderkatzen ari zaizkigu, bai, eta “presarik ez dago” diskurtsoa desmuntatzea lehenetarikoa da. Horrek ekarri duelako, besteak beste, oraindik berriztagarriak ordenatzeko gutxieneko plangintza bat indarrean ez izatea. Beraz, badago non bultza, trantsizioa atzeratuko duten posizioetan ktramilatatu gabe. ●

Protesta



LEIRE NARBAIZA
IRAKASLEA

Aste nekagarri bateko igandea da. Gauza gutxi egiteko, nahiz eta beti egon zeregina etxean, urgentziazkorik ez oraingoan. *Dolce far niente*-rako aproposa, eguraldia ere dudakoa delako. Etxean geratzeko egun egokia. Herrian, baina, eguerdirako manifestaziora deituta dago Gazaren alde eta genozidioaren kontra.

Buruaren barruan eztabaida: etxean gelditu ala manifestaziora joan? Galbanak eta nekeak ideia bitxiak sortzen dituzte: joan ezik, igarriko ote da pertsona bat gutxiago? Manifa egiteak ezertan eragingo ote du Gazan?

Itaunek hor segitzen dute. Europako herri txiki-ertain baten egindako protestak balio du ezertarako? Inork entzuten ditu halakoak? Entzuten arren, jaramonik egiten diete boteretsuek?

Protesta horien eraginkortasuna txikia izaten da. Zer gelditzen zaigu, ordea, herriar xumeoi gure ezinegona eta haserrea adierazteko? Beste zer egin genezake? Zelan borrokatu injustiziak? Erreminta gutxi dauzkagu, eta ez oso efikazak. Arrangura plazaratzeko eta arazoak konpontzeko bide berriak behar ditugu. Halere, azkenean, hausnarketak baztertu, eta elkarretaratzeak lagun bat gehiago izan du. ●

Txapeldunak



JON ALONSO
ITZULTZAILEA

Euskal herritar gehienak bezala, Athleticean alde nengoen ni lehengoan, zalantzarik gabe. Euskal herritar gehienak bezala? Beharbada ez dago hain argi hori. Gipuzkoa aldean zer uste duten alde batera utzita –denetarik izango da, noski–, gehiegi bilatu gabe gazte batzuk topatu ditut Iruñean, Mallorca-ekin zihoazenak. Gazte horiek *navarristak* ote ziren uste duenarentzat, argitu egingo dut: nafarrak, euskaldunak eta abertzaleak dira.

Hona lehen ebidentzia bat: futbolarik ez gaitu batzen. Are, futbola aprobetxatu egiten du prentsa jakin batek gure arteko diferentziak eta ezinikusiak areagotzeko, eta etekin handiak lortzen ditu. Egia da, ordea, futbola ez genukeela epaitu behar eraikuntza nazionalen daukan eraginaren arabera –nahiz eta eragina duen, benetan–. Futbola ez da politika. Futbola futbola da. Ez da egia txikiagoa, baina, futbolarik eta politikariek elkar ukitzen duten puntu bat bada-goela. Hori horrela, batzuek eskertuko genuke baldin eta politikariek forofohutsak balira bezala jokatu ez balute, kanpainen bazeuden ere. Zer esanik ez

Futbolak ez gaitu batzen. Are, futbola aprobetxatu egiten du prentsa jakin batek gure arteko diferentziak eta ezinikusiak areagotzeko

ezker abertzaleko pertsonalitate erreferentzialek, beren forofismoarekin lotsagorritu egin gaituztenek.

Lotsagorritu egin gintuen bezala ETBko kate guztiek, aldi berean, ditxosozko gabarraren ibilaldia emateak. Amigo, han ez zen ihes egiterik. Aukerak bi baino ez ziren: gabarra edo gabarra. Ez zegoen besterik. Tira, bai, ETB ez zen beste kate batera pasatzea. Tabarra,

azkenean, askok aldi berean bataiatu genuen bezala.

Horretan guztian bada atzeko plano batetik ibiltzen den itzal bat, sortzen den susmo bat. Eta ez da garai bateko “futbola herriaren opioa da” edo gisa-korik. Are, opio-dosi txiki bat gaizki ez datorrelakoan nago, bestela hain da jasanezina eta herstura-eragilea egunero panorama. Susmo hori beste hau da: Bilbok patrimonializatu duela ez bakarrik Euskadiren ideia –hori larria litzateke, baina neurri batean ulergarria–, baizik eta baita Euskal Herriarena ere. Alegia, batzuen buruan ekuazio hau baino ez dabilela: Bilbo = Euskadi = Euskal Herria.

Jakina, testuinguru honetan “Bilbo” esatea ezer ez esatea da. Nor da “Bilbo” delako hori? Nortzuek osatzen dute “Bilbo” hori? Ez dakit. Norbaitek baldin badaki eta esaten badit, ordea, nik amesten dudana nazioaren etsairik amorratuenak seinalatuko dizkit.

Ni soziologoa banintz saiatuko nintzateke gaiari zukua ateratzen. Ez naitenez, zorionak txapeldunei eta aupa Athletic. ●



ATXEGA JAUREGIA JATETXEA

EGUNEKO ETA ASTEBURUKO MENU BEREZIAK
EKITALDIAK, OSPAKIZUNAK, FAMILIA TOPAKETAK...

USURBIL • 943 37 11 50 • www.atxegajauregia.com

hik hasi

Hezkuntza eraldatzeko



udako topaketak 2024

Uztailak
2, 3 eta 4
Donostian

22 ikastaro anitz
eta berritzaile uda
giroan jakin-mina
zorrozteko.



www.hikhasi.eus/formazioa

Izen-ematea zabalik

OLATUKOOP

Hamar urte lanean, denontzako bizitza oparoagoaren alde

Gizartea eraldatzeko helburuz jaio zen Ekonomia Sozial Eraldatzailearen mugimendua Euskal Herrian duela hamar urte, Olatukoop sarean bilduta. Denbora honetan ez da gutxi egindakoa: hamaika kooperatiba eta ekimen jarri dituzte martxan, eta sarea zabaldu egin da. Baina erronkak ere ez dira edonolakoak, ekonomiaren balio demokratikoetatik abiatuta eta pertsonak erdigunean jarrita, lurraldean erroturiko proiektuak bultzatzea, besteak beste.

 URKO APAOLAZA AVILA  OLATUKOOP

Krisi sakon batek gogor kolpatuta, Euskal Herriko errealtate ekonomiko eta soziala guztiz desberdina zen 2014an, sei urte atzeragoko garaiekin konparatuz gero. Langabeziaren gorakada itzela, enpresen itxiera etengabea, etxe kaleratzeak... Herritarrek euren haragitan bizi zituzten murrizketak eta bankuen "erreskateak" ekarritako ondorioak. Hemerrotekari begirada bat ematea nahikoa da egoeraz jabetzeko.

Gaindegiaren arabera "berriz ere" 2013an enplegua suntsitu zen, batez ere gazteen artean, eta Corrugados, Fagor Etxetresna Elektrikoak, Inasa eta antzeko enpresak ixteak sorturiko zauriak bizi-bizi zeuden oraindik. Agian, Irurtzungo fabrikatik makinaria ez eramateko Inasako langileek egindako herri harresiak irudikatzen du ondoen lanaren arloan zegoen burujabetza falta.

Ordura arteko errelatoak agintzen zuen ikasi ondoren lana aurkitu behar zela, baina "igogailu sozialaren" ideiak kiebra jo zuen. Abagune horretan, hainbat jendeak erabaki zuen bere esperientzia laboraletik eta gaitasunetik abiatuta autoantolaketari ekitea, lan merkatuak jadanik ez zituelako asetzen. Denbora gutxian kooperatiba sorreren tasa hirukoiztu egin zen Euskal Herrian, hala gogoratzen du Talaios kooperatibako kide Beñat Irasuegik: "Gaur egun ere tasa hori mantentzen da, eta seguruenik krisiak hor jarraitzen duen seinale da hori". Bere ustez, lanaren prekarizatzea da sintoma nabarmenena, "jende bati pizten dio autoeraketarako gogoa, nahiz eta kontrako efektua ere badagoen, segurtasun laboralaren bila administrazioa jotzen dutenena adibidez".



Baina itzul gaitezen 2014ra. Garai hartan hainbat sektoreen pribatizazioa ere gertatu zen, telekomunikazioaren arloan, energiaren sektorean, finantzetan... Eta aldiz, beste izaera bateko proiektuak jarri ziren martxan. Hor katu behar dira Goiener, Koop57 edo Fiare. Osagai horiek guztiek hauspotu zuten ekonomia eraldatzailearen eta olatu kooperatibo berriaren txinparta.

DEIALDI IREKI BATETIK

"Guk kooperatibismoaz ez genekien ezer, baina oinarrizko ideia bat genuen: lan egin nahi genuen batez ere gurea bezalakoak ziren beste kooperatibe-



Azkeneko Saretze Egunean, Gasteizen, migratzaileen ekimen ekonomiko soziala bisibilizatzeko lan egiten duen Bartzelonako Migress proiektua ezagutu ahal izan zuten Olatukoop sareko kideek.

kin", gogoratzen du Irasuegik. Horrez gain, une haietan Kataluniako Coop57ren inguruko jende bat ere elkar-
tzen hasita zegoen, esperientzia hura Euskal Herrira ekartzeko asmoz, baina masa kritikoa behar zen horretarako. Kinka horretan erabaki zuten interneten deialdi ireki bat egitea sare bat sortzeko helburuarekin.

"Twitterren ikusi nuenean nire baitarako esan nuen: 'Hara joan behar dugu'", dio Lakari kooperatibako Leire Udabek. Aurreko lanetik "nazka-nazka" eginda, momentu horretan enpresa sortzen ari ziren bera eta beste kide batzuk: "Bage-
nekien kolektiboan antolatu nahi genuen-

la, eta sarearen oinarri irekiak ikusi genuenean ez genuen zalantzarik izan". Horrela sortu zen Olatukoop, Euskal Herriko Ekonomia Sozial Eraldatzailearen Sarea, 2014ko maiatzaren 14an.

Hasieran zortzi-hamar enpresa zirena, gaur egun Euskal Herri osoko 60 enpresa edo erakunde baino gehiagoko sare zabal bat da, bazkide, kide eta lurralde-sareen artean. Hamaika proiektu eta egitasmotan parte hartzen du eta ekonomia eraldatzailearen bueltan lanean diharduten lurralde nodoak ere gero eta gehiago dira. Olatukoop ezinbesteko erreferentzia bilakatu da, bai merkatuaren kanibalismotik harago, bai

Mondragonen ereduari jarraitzen dion kooperatibagintzatik harago, Ekonomia Sozial Eraldatzailearen bidez bestelako alternatiba bat eraiki nahi duten eragile eta erakunde askorentzat.

KONTZEPTUA EDUKIZ BETETZEN

"Eraldatzaile" hitza da hemen gakoa. Katalunian ekonomia "solidarioak" duen esanahia Euskal Herrian ez dela berdin ulertzen jakinda –sarritan GKE asistentzialismoari lotuta egon baita–, beste kontzeptu politiko bat proposatu zuen ekonomiaren bueltan "konspiratzen" ari zen taldetxo batek. Ekonomia Sozial Eraldatzailea (ESE) zer den zehazki ja-



Olatukoopet Usurbilen egindako batzar baten osteko argazki "ofiziala". Ekonomia eraldatzaileko dozenaka enpresa komunitario eta erakunde biltzen ditu sareak.

kin nahi duenak, Ikusgelak Wikipedian paratutako bideoa bea dezake nahi badu.

Funtsean, lana eta bizitza uztartzean datza ekonomia mota hori, baina indarrean dagoen sistema ekonomikoa eta gizartea eraldatzeko helburuarekin: "Behetik gorako izaera ere islatu nahi du, herrigintzatik datorrena eta puntu militante bat duena", dio Udabek. Bere esanetan, ekonomia eraldatzaileak duen "plusa" da lanari bestelako zentzu bat eman eta bizi-proiektu bezala ulertzen duela, ikuspegi produktibistatik harago. Irasuegik ere lana "birkokatzearen" garrantzia azpimarratu du, momentu batean alde batera uzten ari zelako.

Tradizio kooperatibistatik lanaren zentralitatea, ekonomia feministatik bizitzak erdigunean jartzea, eta herrigintzatik behetik gorako izaera... Konfluentzia horrekin hasi ziren eraldatzaile kontzeptua "edukiz betetzen", diote biek, Olatukoopet hamar urte bete dituela aitzaki hartuta Errenteriako Torrekuan egindako hitzorduan.

Urteurrena behar bezala ospatzeko asmoa dute, maiatzaren 18an Donostian antolatutako festa batekin. Baina aurretik, maiatzaren 14an, ekitaldi politikoa egingo dute Iruñean. Aurrera begirako erronkak azaltzeaz gain, berriki eguneraturiko Oinarri Irekiak aurkeztuko dituzte. Karta horretan, hitz egiten da bizitzaren bizigarritasunaz eta ekonomia eraldatzaileaz, baita ekonomia kooperatiboaz ere, eta (trans)feministaz, euskaldunaz, antiarrazistaz... Hitz egiten

Hamarkada honetan sareak egindako ibilbidea ez da beti aurrez pentsaturiko estrategia baten emaitza izan. Intuizioak eta barruko logikek ere markatu dute norabidea

da lanaren burujabetzaz, erabakitze prozesuen kontrol kolektiboaz, interkooperazioaz, lurralde eraldaketaz eta ondare komunaz... Eta iraunkortasun ekologikoaz ere, noski, hitz egiten da.

ITXI GABEKO BIDEAK

Hamarkada honetan zehar sareak egindako ibilbidea ez da beti aurrez pentsaturiko estrategia baten emaitza izan, kontrakoa eman dezakeen arren. Sarritan, intuizioak eta barruko logikek markatu izan dute norabidea. Baina hastapean "pasiotik" asko zuenak, pixkanaka beste forma bat hartu du Olatukoopetko beteranoenen artean. Eta aldiz, sarea duela gutxi zabaldu den lurraldeetako

kideen artean gauza berriak egiteko gogo eta freskotasuna sumatzen dute, beharrezkoak diren gaitasunak garbitzeko, beharrezkoak diren gaitasunak garbitzeko, beharrezkoak diren gaitasunak garbitzeko.

Lehen fase aktibistaren ondoren, 2017an egituratzeko ordua iritsi zen: koordinazio batzordea sortu zuten eta beste lantalde batzuk ere bai. Geroztik, sarearen hazkunderaren ondorioz etengabeak izan dira moldaketak eta egituratze berriak, eta bere izaera irekia dela-eta beste korranteetako ideiak ere barneratu dituzte, feminismoarenak eta antiarrazismoarenak kasu. Baina Olatukoopetko kideek garbi dute ez dagoela kontakizun perfekturik: eztabaidak egon izan dira, krisiak ere bai, eta batzuetan asmatu da eta bestetan ez.

Pasa den otsailean egindako azken batzarrean, Olatukoopen parte hartzeko moduen proposamen berria onartu zuten, eta horrez gain "barne-interkooperazio sareak" deiturikoak sortzeko prozesua jarri zuten martxan, interesgune berak dituzten kooperatibak edo enpresak harremanetan jarri eta sinergiak lantzeko.

LURRALDEKINTZA, BESTE URRATS BAT

Proiektuak izan dira Olatukoopen motorra urte hauetan guztietan -nagusiki KoopFabrika, ekintzailetza eraldatzaile bultzatzeko formazio programa- eta horien bidez zabaldu dituzte gero eta lurralde gehiagotara ekonomia eraldatzaileari loturiko egitasmoak, errizoma bat balitz bezala. Errizoma, lurpeko

mugimendu geldiezinean eta horizon-talean, biderkatu eta elkar korapilatzen den zurtoin bitxi hori, tantai zaharrenak ihartu eta kimuak indar berriz sortzen dituen, begiz begi, tokian toki. Ez da harrizkoa Olatukoopek bere filosofia irudikatzeko erabili izana.

Baina zabalkundeak baditu bere arriskuak. "Hasieran oso gutxi ginen eta masa kritikoa handitzeko eta proiektuak sortzeko boom batean sartu ginen. Baina Kataluniako Ateneu Kooperatiuko lagunek euren esperientzia kontatu ziguten. Beraiek abiadura handia hartu zuten, politika publikoaren bultzadagatik, eta esan ziguten kontuz ibiltzeko, gauza ez dela sortzea bakarrik, etengabe saretzea eta lankidetzak egitea ere garrantzitsua dela", azaldu digu Udabek. Hala, bere ustez oinarriak jarrita dauden arren, orain "subjektu propioak" sortu behar dira lurralde bakoitzeko beharretatik abiatuta: ekintzailatzatik *lurraldekintzara* pasa behar da.

"Lurraldekintza deitzen diogu kooperatibagintzaren hurrengo faseari", diosku Irasuegik. Lurralde batean bizitzeko behar diren tresnak sortzeko orubea eraikitzea litzateke. Eta horretarako, ezinbestekoa da lurralde horretako baldintzak errespetatzea eta bertako subjektu "antolatatu eta anitzarekin" elkarlanean aritzea.

Eskualde batzuetan ekonomia eraldatzailearen nodoak kasik euren kabuz sortu dira, Bidasoaldean jarduten duen BDS Koop edo berrikitan Goierri martxan jarri duten Biziola kooperatiba, adibidez. Beste eskualde batzuetan, halako alternatiben beharra handia den arren oraindik ez dago oinarri nahikorik, eta epe luzeko prozesuak hasi dituzte, Pirinioetan egin bezala, Udalbiltzaren *Hauspotu* programarekin eta Nafarroako Gobernuaren *Pirinioetako Plana*-rekin batera. Lurralde hartan ekosistema kooperatibo oso bat sortzea planteatzen du Olatukoopek, baina Irasuegiren esanetan horretarako denbora behar da, "soilik subjektua sortzeko hiru urte gutxienez". Proselitismo-rik gabe, inor artifizialki konbentzitu nahi izan gabe, jakinik ekosistema horren zati bat baino ez direla, halaxe ari dira, tokian toki, begiz begi.

BAKARRIK EZIN DA, BIDE LAGUNEKIN BAI

Orain arte Olatukoopek egindako bidean, gakoak izan dira hainbat elementu, Udabe eta Irasuegiren aburuz. Lanaren eta herrigintzaren arteko uztartetan asmatu izana da horietako bat, lehendik

“Kataluniako lagunek esan ziguten kontuz ibiltzeko, gauza ez dela sortzea bakarrik, etengabe saretzea eta lankidetzak egitea ere garrantzitsua dela”

Leire Udabe, Olatukoop

euskalgintzak egin zuen moduan. Hortik abiatuta, diote "proiektuak praktikan" jartzeak eman diela zilegitasuna.

Sareak lortu duen erreferentzialtasun politikoa ere azpimarratu dute, nahiz eta horrek berak, herri gisa dauden hainbat erronka potolori erantzuteko atakan jarri dituen zenbaitetan, eskualde askotan dagoen despulazioari erantzutea kasu. Baina kontziente dira halako arazo estrukturaleri soluzioak emateko Olatukoopek dituen gaitasun mugez. Zentzu horretan, uste dute administrazio publikoak etxeko lan asko dituela oraindik: "Lurraldeetan zerbitzu publikoak eta unibertsaltasuna bermatu behar ditue- na bera da". Nolanahi ere, proiektuak

Lurralde-eraldaketa eta ekintzailatza kooperatiboa

Esku hartze moduak



Lurraldeak eta sektoreak

Lurralde eraldaketa helburu, ekintzailatza kooperatiboa sustatzen dihardu Olatukoopek, mapan ikus daitekeen bezala. Bakaikuarrok eta Zizurkilgo Herri Bizigune bezalako herri kooperatibak, Lizarraldeko, Balmasedako eta Zuberoako subjektu eraldatzaileak, erreferentzia poloak, sare sektorialak, eraldaketa bulegoak... eremu askotan esku hartzen du.

Sarean 60tik gora enpresa komunitario eta erakunde daude -ARGIA 2017tik da kide eta 2020tik bazkide-. Batzuek sektore estrategikotan dihardute, Errigora, Ekhillur, Izarkom, Goierri, edo Koop57 kasu. Bestetzuk lan-esparruan ari dira, Andoni Esparza gizartegintza elkartea edo Manu Robles-Arangiz fundazioa tarteko; Aiarraldea Faktoria edo Teila Fabrika gisako gunek ere badaude; Talleres Mitxelena moduko industria lantegiak, elikadura edo teknologia eta komunikazio kooperatiba txikiak... Ezinezkoa denak hemen aipatzea.

2023ko apirilean "Nor da gure sorkuntzaren jabe? Kultura ekonomia sozialaren ikuspegitik" jardunaldia egin zen Donostiako Dokan, KoopFabrikaren programa barruan.



KOOPFABRIKA

KOOPFABRIKA

kooperatiba eraldatzaileen harrobi

Olatukoopek beste hainbat eragileekin batera garatu duen proiektu nagusienetako bat KoopFabrika da, ekintzaitza soziala bultzatzeko helburuz 2017an sorturiko programa, eta gaur egun oraindik martxan dagoena.

Hasiera batean, lehenengo ideia izan zen ekonomia eraldatzailearen bueltan biltzen ari ziren kooperatiba eta eragileek euren formaziorako tresna bat izatea, garbi ikusten baitzuten hutsune handi bat zutela, bidelaguntzarik ez zutelako norabide horretan. Olatukoopen zebiltzan enpresa askotan ere ez zuten euren egiturak ekonomia eraldatzailearen baliotan bideratzeko formazio nahikorik. Beñat Irasuegi Olatukoopeko kideak 2008ko krisiak ekarritako "lurralde garapenaren porrotarekin" lotzen ditu hastapen horiek. Hainbat eskualde eta udal erakundek beharra ikusi zuten beste estrategia bati heltzeko, esaterako Hernanin edo Bergaran, eta behar

horri erantzuteko hasi zituzten lehenengo ekintzaitza sozialeko programak, Bergarako *Berrikin.Berregin* modukoak; gero, hortik egin zuten KoopFabrika programa zabalagora jauzia.

Lehen unetik hainbat unibertitate eta erakunderekin elkarlanean egin du bidea KoopFabrikak. Olatukoopez gain, Mondragon Unibertsitateko Lanki Kooperatibismoaren Ikertegiak eta EHUko Gezki, Gizarte Ekonomiaren eta Zuzenbide Kooperatiboaren Institutuak antolatzen dute, eta Gipuzkoako Aldundiko Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruko Departamentuak finantzatzen du. Aurten gainera Cristina Enea fundazioaren laguntza izan dute eta Donostiako bere egoitzan egin dituzte Ekintzaitza Kooperatiboko Eskolako saio guztiak.

Parte-hartzaileek, esperientziak ezagutu eta formazio saio teorikoez gain, bidelaguntza izaten dute euren proiektuak aurrera ateratzeko fasean. Azken edizioeko datuak kontuan hartu gabe, aurrekoetan denera 680 pertsonatik gorak jaso dute formazioa, 113 proiektuk izan dute bidelaguntza, eta horietatik 69 jarri dira martxan Gipuzkoako eskualde guztietan. Gainera, Euskal Herriko beste lurralde batzuetan ere ekonomia eraldatzaileko ekimenak sustatu ditu KoopFabrikak.

KOOPFABRIKA HEGOALDETIK
Martxan jarritako proiektuen artean, KoopFabrika Hegoaldetik izeneko dago. Pertsona migratuei ekonomia eraldatzailea hurbildu eta ekintzaitza kooperatiboa sustatzeko tresna bat da, Enarak kooperatibaren, Olatukoopen eta Lankiren artean egina, "kolektibotasunetik abiatuta eta asistentzialismotik urrun". Besteak beste, Kataluniako, Madrilgo eta Andaluziako esperientziak ezagutu dituzte ekimen horretan parte hartu dutenek.

proposatu eta garatzen jarraitzen dute, eta horretarako udalak aliatu garrantzitsuak dira.

Kataluniako ekonomia solidarioko aktoreekin dituzten loturak eta sareko kideen arteko harreman pertsonalak ere lagundu dute bidea egiten, jakina. Ekonomia eraldatzailearen baitan indar handia duen figura baita "bidelaguna", batez ere iritsi berria den horri akonpainamendua egiteko: "Bidelagunek beti euren gorputzak jarri izan dituzte proiektuak aurrera eramateko", aitortu du Irasuegik.

HAMAIKA ERRONKA ETORKIZUNERA BEGIRA

Eta aurrera begira zer? Ekonomia eraldatzailea iparrorratz hartuta, motxila bete lan dute, gutxienez beste hamar urtetarako. Lurraldeetan zabaldu eta aldi berean sare horizontal gisa egitura orekatu bat mantentzea izango da egiteko zailenetako bat. Egitura handi eta zentralizatuerei erreparoz begiratu izan diete beti Olatukoopon, baina azken batzarrean garbi ikusi zuten profesionalizaziorako pausoak eman behar dituztela, eta bestalde, azaldu dutenez, Nafarroan eta Ipar Euskal Herrian figura



Olatukooperek batzarrean hartu ohi dituzten sarearen erabaki garrantzitsuenak.

juridikoak sortzea ere erabaki beharko dute bi urteren buruan.

Autofinantzazioa lantzea, interkooperazioa bultzatzea eta ezagutza kolektibo guztia transmititzen jarraitzea dira beste zereginetako batzuk. "Orain arte jasotako ezagutza sistematizatu egin dugu eta modu librean utzi dugu", dio Udabek, eta bere ustez hemendik aurrera ere horrela egitea izango da ga-

koetako bat, besteak beste ekonomia eraldatzailea gehiago zabaldu eta hobeto ezagutu ahal izango baita horri esker.

Ekonomia eraldatzailearen inbisibilizazioa beti izan da kezka iturri, hortik sortu zen kolektiboak identifikatzeko maparen ideia, gaur egun Batura.eus-en ikus daitekeena. Baina dozenaka enpresa, proiektu, ekimen eta sare osaturiko ekonomia erreal bat den arren, orain-

AIXITA IV. BERTSO SARIKETA 2024

Maiatzak 18, larunbata, 17:30
KULTUR ETXEAN - IRURTZUN

Gai Jartzailea: Zigor Gartzia Arregi "Zian"



PAULA AMILBURU IZARGARAI

PATXI CASTILLO GRACIARENA

AINARA IEREGI ARANBURU

AITOR BIZKARRA RUIZ

MAIDER ARREGI MARKULETA

AITOR SERVIER ETXECHURI





Goitik behera eta ezker-eskuin: Etxebarrin Olatukoopen "Saretze Egunean" ibilalditxoa egiten; Kataluniatik Euskal Herrira bisitan etorritako ekonomia eraldatzaileko eragile eta ikasleak eta kooperatiba eta ateneotako kideak; Aginagako herri-kooperatiba sortzeko formazio saioa; Xaretan, Eskutik kooperatiba ezagutzen.

dik ez du guztiz lortu herritar gehienek ekonomiaz duten imajinarioan sartzea. Beste mugimendu kooperatibo batzuek egiten duten itzala -batez ere Mondragonek-, ez da nolanhikoa, izan ere.

Euskal Herriko memoria kooperatiboaren errelatoa hobeto kokatu behar dela iruditzen zaio Irasuegiri: "Aniztasun eta historia oso aberatsa dauka kooperatibagintzak Euskal Herrian, baina Gerra Zibilaren aurretik zeuden seirehun kooperatibez ez dakigu ezer, ez gara gai bat bera ere aipatzeko". Arlo honetan ere katalanengandik ikasi behar dela uste du, han auzoz auzo ari baitira memoria hori guztia berreskuratzen.

Kezkarako beste gai bat sumatzen ari dira azkenaldian ertzeko lurralde eta herri askotan: erreleboarena. Enprestan ez ezik, laborantzan, merkataritzan eta ostalaritzan aldaketa handia ari da gertatzen zentzu horretan, eta garbi dute migratzaileengandik ez balitz herri asko hilda leudekeela. Gauza da hori guztia nola antolatzen den: "Pertsona migratuei ez diegu agentziarik emango beraien lanaren jabe egin daitezten?".

Jabetza pribatua sistemaren elementu zentral bat den heinean, ondasun kolektiboak edukitzea ezinbesteko izango da bizitza bizigarriagoak egiteko

Kooperatibagintzatik beste eredu komunitario batzuk proposatu behar direla diote gure solaskideek, herrietako negozio txiki familiar horiei segida emateko; eta sindikatuekin elkarlanean egin behar dela gainera, kooperatibagintza eta sindikalgitza "artifizialki bananduak" izan diren bi mundu direlako euren ustez.

Erronka ekosoziala Olatukoopetiko enpresa gehienek ondo barneraturik duten zerbait da, baina eskalan kokatzea ez da erraza izaten. Ildo horretan, azkenaldian ugaritzen ari den "plataforma kooperatibismoa" dute aipagai. Olatukoopetik harago, komunitateak oinarri dituzten proiektuak eta herri kooperatibak dira, kontsumo taldeetan, elikadura burujabetzaren arloan edo energiaren sektorean bilduta, besteak beste. Kontsumo hutsetik harago, herrigintzari emanak daude eta jabetza kolektiboaren ideia ere ari dira garatzen; hor koka liteke, adibidez, Amillubi agroekologia proiektua -ARGIAren zenbaki honetako 38. orrialdean informazio gehiago aurkituko duzu-.

Azken batean, jabetza pribatua gaur egungo sistemaren elementu zentral bat den heinean, ondasun kolektiboak edukitzea ezinbesteko izango da proiektuak aurrera eraman eta bizitza bizigarriagoak egin ahal izateko. Zurtoin eta adaxken txirikordek, lehenik eta behin lurra behar dutelako denontzako oparotasuna ernaltzeko. ●

Ekonomiaren adjektibo guztiak

10. urteurrena kari, Olatukooppek bi liburuxka atondu ditu eta labean ditu jadanik, ekonomia eraldatzailearen eta kooperatibagintzaren ingurukoak biak ala biak. Alde batetik, herri-kooperatiben inguruko eskuorri edo gida bat kaleratuko dute, herri kooperatiba bat zer den azaltzeaz gain, halako proiektu bat sortzeko gakoak ematen dituen.

Beste liburuxkak eduki teoriko sakonagoa du eta ekonomiaz jarduten da mamitik. *Ekonomia eraldatzailea(k)* izenburua daraman lana prestatu du Oscar García Talaios kooperatibako kideak. Lurralde ekonomian doktoratua eta Andaluziako kooperatibagintzan aritutakoa, García-ren berri jakin nahi duenak ARGIAren 2.594 zenbakian egin genion elkarriketa irakur dezake.

Ekonomia eraldatzailean ahotik ahora erabiltzen diren baina sarritan ulertzea zail egiten den kontzeptuen marko teoriko bat proposatzen du ekonomialariak *Ekonomia eraldatzailea(k)* liburuan, eta horren xehetasun batzuk aurreratuko ditugu gigidan.

KAPITALISMOA > Lehen atalean ekonomia-nozio oinarritzkoenak definitzen ditu egileak, kapitalismotik hasita. Ekonomia mota horretan "natura, ia gauza guztiak bezala, norbaiten jabetza pribatu eta eskusiboko merkantzia bihurtzen da. Horrela, ekonomia kapitalistak lortu du bere agente hegemonikoak, kapitalak, existitzeko gaitasuna izatea".

IZEBERGA > Baina, existentzia hori beste oinarri batzuen gainean dago erakia. Hain justu, ekofeminismoak ikuspegi "argigarri" bat eman du horren inguruan, bere esanetan "bizitzari eusten dioten katebegi" batzuek osatzen baitute ekonomia: azpialdean daude natura, zaintza eta komunitatea, eta horiei esker ez dira hondoratzen Estatu eta merkatu kapitalistaren espazioak. "Izebergaren ekonomia" deitzen zaio horri.

IRABAZIAK VS. BIZITZA > Helburuak ere oso desberdinak dituzte ba-



tzuek eta besteek. "Ekonomia kapitalistan funtsezko helburua irabazia edo irabazien/kapitalaren metaketa da. Aldiz, ekonomia eraldatzaileen helburua bizitza mantentzea eta aberastea da".

LANA > Sistema kapitalistak "lana" kontzeptua "enplegura" edo besteren konturako soldatapeko lanera murriztu du. Baina hori ez zuen berehala eta modu baketsuan egin: "Jendeak ez zuen arazorik gabe onartu eskulan bihurtzean ekarri zien diziplina, kontrola eta menpekotasuna. Milaka pertsona eraili zituzten Europako herrialdeetan eta kolonietan, eta emakume asko bortxatu eta erail zituzten 'sorgin-ehizan' menpeko lanaren diziplina ezartzeko", dio García, Silvia Federiciren ikerketak aipatuta. 2020an pandemiarekin oso agerian geratu zen bizitzarako funtsezkoak diren lanak "subalternitate baldintzetan" egindakoak direla, preseski.

KOMUNA ETA PRIBATUA > Lurra- ren pribatizazioa da egungo sistemaren jatorrian dagoena, edo beste modu batera esanda, "naturaren erabilera kolektiboaren abolizioa". Itxiturekin edo Ingalaterran *enclosure* hitzarekin sinbolizatu zen ideari aurre egiten "komuna"

dago. Hasiera batean lur, baso eta larre kolektiboek zeritzaien, baina gaur egun kapitalismoaren pribatizazio, merkantilizazio eta "bestelako harrapaketen jomuga bihurtzeko daitezkeen guztia hartzen du barnean".

ADJEKTIBORIK GABE > Liburuaren bigarren atalak aztergai ditu ekonomia sozial edo gizarte-ekonomia mota desberdinak. Zenbat ekonomia, hainbeste adjektibo: gizarte ekonomia kapitalista, ekonomia kolaboratiboa, ekonomia komunitarioak, herri-ekonomia, ekonomia solidarioa, ekonomia eraldatzailea... Baina diferentziak handiak dira paradigmen arabera: batzuek pertsonen premiak asetzea dute helburu, besteek gizartea eraldatzea. Eta hemen, Ekonomia Sozial Eraldatzailearen definizio bat botatzen ausartzen da García: "Bizitza mantentzea eta hobetzea helburu bakarra izango duen sistema sozioekonomiko alter-

natibo baterantz jo nahi duten ekimenen multzoa; horrek eta ez bestek izan beharko luke-eta ekonomiaren (adjektiborik gabe) jomuga".

BURUJABETZA > Lurralde garapenaren gaia jorratzen du egileak hirugarren eta azken atalean; burujabetzari buruzko ideia batzuk dakartza, tokiko demokraziari lotuak. Bere esanetan, burujabetza ekonomiko orokorrera iristeko, beharrezkoa da "lurralde jakin batean modu kolektiboan lorturiko burujabetza, edo 'lurralde burujabetza ekonomiko' izatea". Hala, "burujabetzari gabe, behetik ezinezkoa izango da kapitalak goitik ezarritako esparruari eta politikei aurre egitea".

Kontzeptu eta kontzeptu artean, esperientzia praktikoak eta historikoak ere gogorarazten ditu García bere lanean, printzipio kooperatibo gisa baliagarriak izan daitezkeelakoan. Esaterako, *Pirinioetako Zuzenbidea* forma juridikoa, batzarreak, auzolanak eta herri-lurrak oinarri zituena; edo Andaluziako jernalari klasearen balioak, lan onaren aurrean *konpliztea*, eta desjabetuen batasuna eta lurren banaketa barnebiltzen dituztenak.

A portrait of Ghayath Almadhoun, a man with long, dark, curly hair and a beard, wearing a black jacket. He is looking directly at the camera with a serious expression. The background is a textured, grey wall.

“ ”

Alemania nagusitasun zuriaren piramidearen gailurrean dago, eta lehen holokaustoa ukatu zutenek orain Nakba ukatzen dute

Ghayath Almadhoun

Ghayath Almadhoun-ekin hitz egin dugu Alemaniako zentsura sistemikoaz eta horren ondorioez. Siriako Damaskon 1979an jaiotako poeta palestinarra, Suediara joan zen bizitzera eta egun Berlinen bizi da. Bere poesiak, ia 30 hizkuntzatan itzulia, maitasuna, tokialdatzea eta nortasuna jorratzen ditu bere bizi esperientzietan sustraituta. *Adrenalin* bilduma goraiatu dute nazioartean, poemen sakontasun eta oihartzun emozionala direla-eta. Almadhounek artista eta itzultzaileekin egindako kolaborazioek haren oihartzuna anplifikatu dute eta poesia garaikidean ahots esanguratsua bihurtu. Duela gutxi argitaratu du poesia bilduma berria: *Esku moztu bat ekarri dizut*.

 NEREA MENOR  SINA OPALKA

Zure poesia politikoa dela diote eta gerraz egiten duela berba. Hala da?

Nekez topatuko duzu gerra hitza nire poesian. Europar Batasunean, kategoriak sortzea gustuko du jendeak. Erbeste-idazlea, immigrazio-idazlea, gerra-idazlea... Baina, idazleak besterik ez dira. Munduko migratzaileen %90 jende zuria izan da, Argentina eta Zeelanda Berrikoak kasu, eta ez zaie iheslari-idazle deitu. Literatura eta poesiari buruz solasten dira komunikabideetan; niri, aldiz, ibilbidearen eta bizitzaren inguruan galdetzen didate.

Gerra pairatzen duten herrialdeetan baina, Palestina kasu, gerrak determinatzen du lekuko literatura.

Israelek Palestinan egiten duen kaltea izugarria da, baina handienen artean daude gure artea eta literatura. Idazkera bera landu edo beste gauza batzuei buruz idatzi beharrean, beste edozein idazle bezala, Palestinako idazleek literatura eta artea borrokara zuzentzen dituzte, hura baita errealitatea. 75 urteko okupazioaren aurkako borrokan parte hartzen saiatzen dira, horrela beste norabide bat emanda gure literaturari.

"Pantailetan eta prentsan ikusi dituzun gauzak gara gu, eta piezak bat egiten ahaleginduko bazina, puzzle baten antzera, gure irudi argia lortuko zenuke, hain argia ezen ez zinatekeen ezer egiteko gai izango", diozu *We* poeman.

Hori da Alemanian gertatzen ari dena.

“ ”

AEBetan edo Suedian, gobernuauzi palestinarren aurka dago, baina herritarrak Palestinarekin daude. Alemanian, herria eta gobernuak kontra ditugu

Alemaniako iraganarekin alderaketak egitea ez dute onartzen. Palestinarrak isilarazi dituzte eta palestinarren alde dauden judu eta beste pertsona asko ere bai. Ez dago esaterik "hau aurretik ere gertatu izan da hemen", gaur egun Palestinako gaiarekin gertatzen ari dena 1930eko hamarkadako Alemanian egoerarekin alderatuko nukeelako, antza. Eta hori ez dago baimenduta.

Nolakoa da artisten egoera Alemanian?

Azken sei hilabeteetan 129 ezeztapen gertatu dira. Tira, horiek dira publiko egin dutenak. Isilik gelditu diren artisten bigarren multzo bat ere badago. Albistea zabalduko balitz, antisemitismoaz akusatuko lituzkete Alemanian eta lana eta karrera galduko lituzkete.

Nola gertatzen da ezeztapena?

Ezeztatuak izan direla ez dakitenek osatzen dute hirugarren multzoa. Ekitaldien antolatzaileek artistei telefonoz deitu eta beraien lanak erakusteko ea une egokia den galdetzen diete. Batzue-

tan behin baino gehiagotan jasotzen dituzte deiak, artistak "beno, agian ez da une egokia" erantzun arte. Horrela artistak bere burua baliogabetzen du.

Zein izango da egoeraren bilakaera?

Ekitaldi, antzezlan eta ikuskizunetara ez gaituzte gonbidatuko. Egia esan, oso nabaria da dagoeneko. Ekitaldi batean ezeztatu nindutenetik ez naute beste inora gonbidatu Mendebaldean. Nire ezeztapena izan zen txorakeriarik handiena. Ez zen Palestinari buruzko antologia bat, ezta antzekorik ere; poesia arabiarra zen. Palestinarra naizelako ezeztatu ninduten. Egoera berria da niretzat.

Ez gaude poesia-irakurketetan, antologietan edo agertoki gaineko eztabaidetan, eta ez gaituzte poesia-jaialdietara gonbidatzen. Nire aurrezkietatik bizi naiz orain. Laster, inoren lana ezeztatzeko aukerarik ez da egongo, desagertuta egongo gara eta. Gaur egun, palestinarrek ekiditen dituzte, Palestinaz hitz egiten duten juduak saihesten dituzte. Artearekin zerikusia duen lan edo ekitaldietan parte hartzen duen artista palestinarrik ez dut ezagutzen Mendebaldean.

Alemaniatik kanpo, Mendebaldeko beste herrialdeetan, nolakoa da egoera?

Amerikako Estatu Batuetan, adibidez, edo Suedian, gobernuauzi palestinarren aurka dago, baina herritarrak Palestinarekin daude. Alemanian, herria eta gobernuak kontra ditugu.

Hilabete hauetan guztietan, aldatu al da Alemaniako gizartearen jarrera gatazkarekiko?

Bat ere ez.

Alemania oroimen eta adiskidetzearen ikono bihurtu zen. Alemaniarren errudun konplexuaz ere asko hitz egin da. Baina, azkenaldian, badirudi alemaniar izan nahi duten etorkinei kriminalen rola ematen zaiela, ez biktima potentzialena.

Ez dut alemaniarren erru-konplexua sinesten. Erru selektiboa da. Adibidez, naziek sei milioi judu erail zituzten modu sistematikoan. Hain ikaragarria izan zen, gehiegizkoa eta zentzugabea, ezen Hannah Arendt gisako pertsona zorrotzentzat ere sinesgaitza izan zela. Orain, 90 urte geroago, Alemanian, "importatutako antisemitismoa" aipatzen

da. Alemanian eraso antisemita gehienak gizon zuri kristau europarrek egin dituzte. Hala ere, inportatutako antisemitismoaz hitz egiten dute. Sei milioi judu horiez gain, gerran 28 milioi sobietar hil zituzten: 10 milioi soldaduak ziren eta 18 milioi emakume eta haurrak. Haienganako errurik egon al zen edo konpentsazio-funtsik? Poloniako egoera ere hor dago: non dago dirua eta erru konplexua Poloniarekiko?

Batzuk gertaera zentzugabeak izan dira.

Alemania nagusitasun zuriaren piramidearen gailurrean dago. Garai batean holokaustoa ukatu zutenek orain Nakba ukatzen dute. Pasa den hilabetean, Neukölln (Berlingo auzoa) Nakba mito gisa deskribatzen duten liburuxkak eskolatan banatzeko eskatu zuten; eskolaren hezkuntza-esparruan dauden "narratiba antisemitak" saihesteko, antza. Oso gai zaila da, baina etorkizunean palestinarrekin gertatzen ari denagatik damua eta lotsa sentituko dituzte.

Mendebaldeko gobernu eta erakundeengan itxaropenik izan dezakegu?

Arabiarrei eta musulmanei, kolonialismoaren garaitik, gizatasuna kendu izan diete eta Israelek jarrera horretan tinko jarraitzen du palestinarren aurka. Arabiarrak, musulmanak, errefuxiatuak, etorkinak... "besteak" dira. Israel orain ez da "bestetzat" hartzen. Kolonialismoaren historiaren jarraipena besterik ez da, Israel Europako proiektua da Ekialde Hurbilean. Ez da inoiz aldatuko boterearen izaerarekin konektatuta da goelako. Arabiarrek mundua konkistatu zutenean gauza bera gertatu zen.

Alemaniko lagun eta lankideekin hitz egiten duzu honetaz?

Alemaniko herrialde "librean" su-etenen alde berba egin edo "Palestina askatu" esateagatik akademian lanpostua gal dezakezu. Geure buruari galdetu beharko genioke zer diren, nola definitu dezakegun, garaiotan Europan etengabe gertatzen ari diren ekintza hauek.

Eskarmentu handia dut diktadurakin. Sirian ezin zen Al Assaden familia kritikatu. Gauza bera gertatu zen Libian Gadafirekin edo Sobietar Batasunean Stalinekin. Alemanian kritikatu daiteke, baina ez Israel. Adibide bat: nire lagunek ez diete *like* ematen Instagrameko nire argitalpenei Palestinaren ingurukoak



badira, norbaitek ikusiko duen beldurrez. Baina ebidentziarik uzten ez duten istorioetan, hori bai. Shock egoeran daude. Sirian bizi izan nuena bizitzen ari gara, baina demokrazian.

Kontinentaldrift: Das Arabische Europa (Kontinenteak noraezean: Europa arabiarra) antologiaren komisario eta editore nagusia zinen Berlineko Poesiaren Etxean, baina urrian bertan jakin zenuen urriko aurkezpen-ekitaldia bertan behera geratu zela.

Europa Persiarraren eta Europa Beltzaren ondoren, 2021ean Poesiaren Etxeko zuzendariak eskatu zidan *Europa arabiarra* antologiaz arduratzeko. 34 egile sartzeko asmoa geneukan baina, jasandako zentsuraren ondorioz, 31rekin amaitu genuen lana. Hilabete batzuk ge-

roago, zuzendaria (30 urte zeramatzan karguan) erretiratu egin zen.

Talde berri batek hartu zuen ardura, eta lehenengo bileran jakinarazi zidaten kontratuan atal berri bat sartuko zutela. Antologiako 34 idazle arabiarrek idazki bana sinatu beharko lukete esanez BDS-ren aurka daudela. Palestinarrek bultzatutako indarkeriarik gabeko mugimendua da BDS, Israelen aurkako boikota, desinbertsioak eta zigor ekonomikoak sustatzen dituen. Ezetz esan nuen, hori diskriminazioa zela. Horrelakorik ez dela inoiz eskatu beste antologietan. Alemanian debekatutako erakunde guztiak sar genitzakeela (Alemaniako Ku-Klux-Klan edo New Nazi adibidez) edo bat bera ere ez. Klausula kontratutik kendu zuten. Nire gomendioa orduan izan zen kontratu guztietan Poesiaren Etxea homofobiaren, antisemitismoaren, arrazakeriaren,

sexismoaren eta islamofobia-
ren aurka dagoela idaztea.
Dena sartu zuten, islamofobia
izan ezik, jakina.

**Klausula kontratutik
kanpo utzi bai, baina
antologiako hainbat zati
zentsuratu zuten.**

Nirekin kontsultatu gabe,
editorea eta komisarioa izan-
nik, hamar poema ezabatu
eta poesia antologiatik kanpo
laga zituzten. Urte eta
erdi baino gehiagoko lana
zen, zortzi itzultzaile... Behin
eta berriz esaten zuten kalitate-
gaitatik zela, baina, jakina,
poema horien erdiak baino
gehiagok Palestinarekin, judaismo-
arekin eta Alemaniako historiarekin lotura
zuten. Zentsura-ekintza izan zen, hor-
taz. Proiektutik ateratzen saiatu nintzen,
baina antologia nire izenean argitaratu-
tuko zela zioen kontratuak. Isildu egin
nintzen. Garaitua sentitu nintzen.

**Esku moztu bat ekarri dizut bilduma
argitaratu berri duzu.**



“ ”

Alemanian artista palestinarrak
ekiditen dituzte,
Palestinaz hitz egiten duten
juduak saihesten dituzte

Otsaila amaieran, arabie-
razko nire bosgarren poesia
bilduma atera zuten labe-
tik, Beiruten. Lauzpabost
hilabete barru ingelesezko
bertsioa kaleratuko da. Ale-
manez, ez dakit. Duela bost
urte adostu genuen kontra-
tua, baina ez dakit zer ger-
tatuko den. Argitaletxeak
eta editorea pertsona onak
dira, baina ez ditut presio-
natu nahi.

Zer diote zure olerkiek?

Batez ere amodiozko poe-
sia da, baina asko arakatu
behar da hala dela ulertzeko.

Atzeko oihala beldurrez eta
amesgaitoz osatzen da. Ni ondo nago,
baina nire liburuak gaixo daude. Bizirik
atera naiz, baina nire liburuek TOEN
(Trauma osteko estresaren nahasmen-
dua) dute, bizirik irauteagatik erru-kom-
plexua. Zorte handikoa naiz hau guztia
nire liburuei gertatzen zaielako eta ez
niri. Baina, oinarrian, maitasun-poesia
da. Nire poema guztiak maitasun-poe-
mak dira. ●

**BILBOKO
AREATZAN**
maiatzaren 22tik 25era
— 2024 —
GAZTEEK
ikasturtean egindako
STEAM
proiektuak
IKUSGAI

zientzia-azoka.elhuyar.eus

**zientzia
azoka
elhuyar**

bizi ikerketa!

Babesleak:

“Genero kontua da: osasun sistemak guztiz baztertzen eta erasotzen gaitu, ikusezinak gara”

Pertsona oso energetikoa da eta gorputzak uzten dion bitartean “ahalik eta gehien” disfrutatzen saiatzen da Espe Ciriza Asenna Nafarroako Endometriosi Elkarteko kidea (Iruñea, 1981). Endometriosisa dauka, eta horren ondorioz, “izugarrizko” min kronikoa pairatzen du. Lau ebakuntza egin dizkiote eta anestesiko ugari hartzen ditu, baina mina ez da baretzen. Hilekoak eragindako mina ikertzea eta prebentzioan indarra jartzea beharrezkoa dela nabarmendu du.

 OLAIA L. GARAIALDE



Espe Ciriza

1 2-13 urte zituelarik gorputzeko mina eta nekea sentitzen hasi zen Ciriza. Amak bainu bat hartzeko esan zion, eta uretatik atera ostean odola ikusi zuen: hilekoa zen. “Ez nuen deus ulertzen; amari galdetu nion zer zen. Ilusioa eta mina sentitzen nituen”, kontatu du. Orduetik, teknika, botika eta ebakuntza asko probatu dituen arren, “ikaragarritzko” mina sentitzen du. 28 urterekin endometriosisa diagnostikatu zioten. Endometriosisa gaitz kronikoa bat da eta endometrioia uterotik kanpo sortzen denean eta hilekoarekin kanporatzen ez denean sortzen da: “Hilabeteak eman izan ditut hilekoarekin”.

Minaz gain, “pila bat” odolustea eta anemia dira sintometako batzuk: “Txikitik hirunaka eta launaka hartzen nituen nolotilak eta espidifenak. Gainera, ordu erdiro gelatik atera behar izaten nuen konpresa aldatzeko. Askotan

“Psikiatrara bidali ninduten, esanez mina asmatzen nuela; oso bakarrik sentitu naiz”

hanketatik jaisten zitzaidan odola eta txaketarekin estali behar izaten nuen. 1990eko hamarkadan lotsa handia ematen zuen hilekoak”. Deus gutxi hitz egiten zen hilekoaz: “Eskolan batere ez, eta etxean soilik guraso modernoak ziztuztenek”. Minaz gain, askotan sukarra izaten zuen: “41,5eko sukarra izatera iritsi naiz”.

Urte asko eman ditu medikuz mediku minaren zergatia jakin gabe. Osasun sistema publikora zein pribatura jo zuen, baina inork ez zekien zer zen: “Psikiatrara bidali ninduten, esanez mina asmatzen nuela; oso bakarrik sentitu naiz”. Salatu du oraindik ere ez dela hilekoaren

inguruan ikertzen: “Genero kontua da: osasun sistemak guztiz baztertzen eta erasotzen gaitu eta ikusezinak gara”. Ez dago botikarik edo ebakuntzarik gaitza sendatzeko, baina garaiz antzematen bada gehiagora ez joatea lortu daiteke. Horregatik, prebentzioan indarra jartzea garrantzitsua dela nabarmendu du: “Oso zaila da ginekologoarenera joatea; ez joateko erresistentzia handia egiten dute medikuek”.

MIN AMAIEZINA

28 urte zituenean, sanfermin batzuetan, parrandan zegoelarik lagun baten gainean igo, eta iltzaturik geratu zitzaion eskuineko hanka. Ospitalera joan, eta apendizitisa zuenez ebakuntza bat egingo ziotela esan zioten: “Osaba medikua da, eta esan zien ginekologo batek begiratzeko. Zortzi zentimetroko endometrioia –kistea– nuen. Oso hotza izan zen mediku bat etorri zen eta esan

zidan endometriosisia nuela eta ezin-
go nituela haurrak izan". Halere, bi
haur izan ditu Cirizak: "Zorte handi-
dia izan dut. Oso gogorra egin zi-
tzaidan, mediku horrek amets bat
kendu zidan". Ugalkortasun teknika
batzuen ostean lortu zuen haurdun
geratzea: "Beldur handia nuen, bes-
te arrisku batzuen artean, aborta-
tzeko arrisku handia nuelako".

Diagnostikoa jaso eta bi hilabe-
tera egin zioten ebakuntza. Ordu-
tik, lau ebakuntza egin dizkiote. Azke-
nekoan histerektomia erradikal bat;
hau da, umetokia, umetoki-le-
poa, obarioak, umetoki-tronpak eta
inguruko ehunak kendu dizkiote.
Medikuntza tradizionala, imanak,
yoga, minaren kudeaketaren ingu-
ruko tailerrak, denetarik probatu
du, baina mina sentitzen jarraitzen
du. Nafarroako Ospitaleko Mina
Tratatze Unitatera ere joaten da
eta botika ugari hartzen ditu: "Li-
dokaina saioak jasotzen ari naiz,
eta momentuz ez dut aldaketatik
sumatu. Horrez gain, pilula pila bat
hartzen ditut: goizean bi antidepre-
sibo eta lorazepam bat, eguerdian
lorazepama eta morfina, eta gauean
bi antidepresibo eta bi diazepam.
Hala ere, minez esnatzen naiz gaue-
tan". Lidokainak ez badu funtziona-
tzen, ketamina emango diote: "Nola
amaituko dut?".

IKUSEZINTASUNEAN MURGILDURIK

Kanpotik ez denez detektatzen, gai-
xotasun ikusezina ere deitzen dio-
te endometriosiari: "Zazpi organo
kendu dizkidate, baina ez du inork
ikusten". Baztertuta sentitzen da:
"Nire bizitzako pertsona hurbile-
nek ulertzen ez duten mina sentitu
dut beti". Medikuen arabera ona da
kalera ateratzea, ibiltzea eta so-
zializatzea; hala ere, ez da batere
erraza: "Saiatzen naiz oso parran-
da zalea naizelako. Askotan aulki
bat izaten dut ondoan, eta nekatzen
naizenean esertzen naiz. Azkenean
esaten dizute aspergarria zarela eta
giroa izorratzen duzula".

Lanean ere eragiten dio minak
eta bi urte darama bajaran. %60ko
desgaitasuna ematea lortu du, bai-
na lanerako ezintasuna lortzea "oso
zaila" dela dio: "Medikuek esaten zi-
daten: 'Zer nahi duzu, 42 urterekin




erretiroa ematea?', baina nik ez dut
hori nahi. Mina kentzea eta bizitza
aktiboa izan nahi dut". Horrek pre-
karizaziora eramaten duela salatu
du: "Bajan egonik sos gutxi kobrat-
zen dut; elikagai bankuak laguntza
ematen dit".

Horrez gain, amatasuna ere
"zailtzen" duela nabarmendu du.
Bananduta dago eta bi astetik behin
egoten da haurrekin. "Alde batetik
bestera ibili behar zara eta ikara-
garrizko mina sentitu arren, hau-
rren erritmoa jarraitu behar duzu,
edo nik, behintzat, jarraitu nahi dut.
Oso gogorra da", esan du hunkitu-
rik. Haurrekin dagoenean ahalik eta
denbora luzean pasatzen saiatzen
da: "Amorrua sentitzen dut badaki-
dalako zer den gaixorik dagoen ama
bat izatea. Zorionez, bikotekideak
ulertzen nau eta laguntzen dit". En-
patiari, begietara begiratzeari eta
besarkadei garrantzi handia ema-
ten die: "Haurrak zoriontsuak eta
pertsona onak izatea nahi dut, eta
ama gaixorik egon arren beti on-
doan egonen naizela jakitea". ●

GORPUTZEKO ATAL BAT?

"Burua eta bihotza
oso garrantzitsuak
dira. Lehen asko
gustatzen zitzaidan
umetokia, lore baten
antzekoa delako;
bizitza irudikatzen du. Baina
prestatu gabe kendu zidatenez,
maitatzetik gorrotatzera pasa naiz.
Feminitatea kendu izan balidate
bezala sentitzen dut. Ez gaituzte
horretarako prestatzen".



Amillubiren festa maiatzaren 11n

LURRA TAUPAKA HASIKO DA



Urola ibaiaren meandroan, Zestoako Iraeta auzoan daude Amilibia baserria eta bere lur emankorrak: 5 hektarea baso eta 4 hektarea laborantza lur. Laborantza ekologikoa sustatzen duen Biolur elkarteak baserria eta lurra kolektibizatu nahi ditu Amillubi proiektuaren bidez. Horretarako martxan du diru bilketa kanpaina eta maiatzaren 11n egun osoko festa eginda ospatuko du herritarrekin proiektuaren hazia ereiten hasi direla.



ESTITXU EIZAGIRRE KEREJETA



IONE LARRAGO

Elikadura burujabetzarekin lotzen dut nik Amillubi. Datu jakina da Euskal Herrian jaten denaren %90 baino gehiago kanpotik etortzen dela, eta horiei denei ez nieke 'elikagai' deituko, zeren niretzat elikagaiak osasuntsuak direnak dira, elikatzen dutenak. Amillubin elikadura osasuntsua egingo da eta elikadura burujabetzara iristeko altxorra izango da. Politika publikoetan ez zaio garrantzirik ematen gai horri baina lehentasunezkoa da janari osasuntsua bertan sortzea". Myrian Imaz Juaristiren hitzak dira. Amillubi proiektuko lantaldean dabil eta une honetan buru-belarri ari da maiatzaren 11n egingo duten festa antolatzen.

Egun osoko egitaraua prest dute, adin guztietako herritarrek udaberriko festa eder bat gozatzeko: "Denoi gus-tatzen zaigu ondo pasatzea, plazera, taldean egotea, harremanak sortzea... eta festak balioko du jendeak bertatik bertara ikusteko eta ulertzeko zer den Amillubin lantzen ari garena", dio Imazek. Izan ere, Amillubin dagoeneko lurra taupaka hasi da.

PORRU LANDARE EKOLOGIKOAK, ARTOA, BABARRUNA, GARIA...

Iragan abendu hasieran eman zen eza-gutzera Amillubi proiektua. Geroztik ez dira geldirik egon: dirua biltzeko kanpaina jarri zuten martxan, hitzaldiak ematen ari dira herriz herri proiektua herritarrei aurkezteko, eta hainbat auzolan egin dituzte baserria eta lurrak atontzeko eta konpontzeko: aterpea, ukuilua, komuna, inguruak, fruta arbolak, esolak txukundu eta berritu dituzte biolurki-deen artean.

Formazio saioak egiteko ere erabiltzen hasi dira Amillubi: emakume laborariei zuzendutako bi ikastaro egin dituzte, segamakinak eta motorrak erabiltzen ikasteko. Imazek esan du kopuruz "oso arrakastatsuak" izan direla eta mami handikoak: "Teoria eta praktika landu ziren eta polita izan zen parte hartzera etorri ziren batzuek bazekitela erabiltzen eta elkarri erakusten ere aritu zirela".

Amillubiko lurra lantzen ere hasiak dira. Baratzeetan landatzeko porru landare ekologikoak falta direla ikusi dute eta behar horri erantzuteko lurra pres-tatu dute auzolanean, ur sistema ere ezarri dute eta eguraldiak laguntzeko zain daude egun hauetakoren batean porru haziak ereiteko. Merkatuan falta diren porru landare ekologikoak Ami-

llubiri esker eskuratu ahal izango dituzte baratzezainek, beraz.

Beste lur sail bat prestatu dute maiatzean babarruna eta artoa ereiteko. Babarrun uztaren zati handiena kontsumo elkarte eta azoketara joango da eta beste zati bat Euskal Herriko hazi ekologikoak ekoizten dituen Aleka proiekturako erabiliko dute, hazitarako alegia.

Beste lur sail batean, Biolurreko okin taldeak udazkenean antzinako gari barietate bat ereiteko asmoa du, Hobeia proiektuaren baitan.

Horiek denak dira gaur egun martxan jarriko dituzten epe motzeko proiektuak, denak ere elikadura osasuntsuaren eta burujabetzaren bidea urratzen laguntzen dutenak, modu kolektiboan.

Eta epe erdi eta luzerako proiektuak ere aztertzen hasi dira. Iragarri dutenez, aurrerantzean udaberriko festa ludiko bat egingo dute (maiatzaren 11 honetakoa bezala) eta udazkeneko hausnarketara bideratutako festa bat, Amillubi proiektua kolektiboan lantzeko: "Hainbat gai daude Amillubiri buruz hausnartzeko, non gauden eta nora joan nahi dugun, zer beharri erantzun nahi diegun, praktikan zein diren epe ertain eta luzera martxan jarriko diren proiektuak, zein balore eta horiekiko koherentzia nola landu nahi ditugun...", azaldu du Imazek.

150.000 EURO LORTZEKO BESTE BULTZADATXO BAT

Amillubi proiektuko baserria eta lurrak erosteko, maiatza bukatzerako 150.000 euro lortzea jarri zuten helburu eta maiatza hasierarako 100.000 eurotik gora dituzte jasoak. Pozik da Imaz orain arte lortu denarekin, eta festa honek diru kanpainari beste bultzadaxo bat ematen lagunduko duela dio. Gogorarazi du festara joateko sarrera aurrez hartu behar dela www.amillubi.eus webgunean –festara joango ez denak ere webgune horretan bertan egin dezake Amillubiren aldeko diru ekarpena-. Egun osoko egitaraua prestatu dute, tartean piknik erako bazkariarekin, eta aukera dago sarrera egun osokoa, goizekoa edo arratsaldekoa hartzeko (bazkaria aparte ordaindu behar da).

Egitarau saltseroa gozatuko dute bertaratzen diren herritarrek eta nabarmenezkoa da arituko diren artista denak inplikatu direla Amillubi proiektuarekin, egun horretako haien lana Amillubiren alde egindako ekarpena izango da. ●

EGITARAUA

Maiatzak 11, Amillubin

Umeentzako txokoa egongo da.

11:00 Amillubi egitasmoaren aurkezpena eta bisita.

12:00 Bi ekintza aukeran:

Enekoach-ekin *Lurrarekin konexioa* saio umoretsua (Antton Telleria).

Baso bainu-ibilaldia **Tantai** kooperatibaren eskutik.

13:30 Poteo musikatua

Euskal Herriko Batukada

Feminista Sareak girotuta.

14:30 Bazkaria.

15:30 Umeentzako clown ikuskizuna **Itziar Saenz de Ojer**-en eskutik.

16:30 **Grego**-ren bakarrizketa umoretsua (Beatriz Egizabal).

17:30 **Mejillon tigre** kolektiboaren errezitaldia.

18:30 Kontzertuak: **Pelax, 3zur** eta **Babarrunba** taldeekin.

SARRERAK

Aurrez hartu behar dira www.amillubi.eus webgunean:

- Egun osoa 20 €.
- Bazkaria 10 €.
- Goiz pasa 10 €.
- Arratsalde pasa 15 €.
- 12 urtez beherakoek dohainik, bazkari gabe.

AMILLUBIREN AURKEZPENAK

IRUÑEA: Maiatzak 14, 18:30ean Geltokin.

HONDARRIBIA: Maiatzak 21, 11:00etan BDSKoopan.

DONOSTIA: Maiatzak 23, 18:00etan Teila Fabrikian.

LAN BANAKETAK



Ezkerrean erle langilea eta eskuinean erlamandoa. BEEPROFESSOR.COM



**MATTIN JAUREGI ETA
INAXIO ARIN**
BALERDIPEKO ERLEAK

Gizakiok ez bezala, erlauntzako hiru partaideek jaiotzetik dituzte eginkizunak argi.

Erregina, jaio orduko hasten da bere giharrak lantzen, ahalik eta indartsuen jartzeko. Jaio eta egun gutxira bere eztei bidaia hasten baita, ernalketa hegaldiak...

Hegaldi horietan estaltzen dute erlemandoek, eta baita bizitza guztirako bere lanak finkatu ere: erregina ernaltzen dute, beraz, arrautzak errutea du bere zeregina hil arte.

Erle langileen kasua gizakiona bezalakoa da; erle langilearen gorputza garatzen doa eta garapen zikloaren araberako lan ezberdinak egiten ditu:

Hautzaroa erlea jaio den gela (abarraskak) garbitzearekin hasten da. Ondo-

rengo egunetan, bere ahizpekin batera, erle bilakatuko diren larbak elikatzeari ekiten dio. Gizakiak ere hobeto luke jaiki eta norberaren gela garbitu.

Nerabezaroan erlauntzako mantenimendu lanak egiten dituzte: ahizpa zaharrek ekarritako janaria (polen, nektar, propolia) biltegitratzen dute eta puskatutako abarasken zatiak konponitzen dituzte (argizari guruinak garatuta dituzte). Gizakiak ere hobeto luke garaian dagoena biltzea, ez dagoenean eduki ahal izateko.

Heltze prozesuan lehenengo hegaldiak egiten hasten dira erlauntzaren inguruan, ondoren polen, nektar, propoli eta ura biltzen hasteko. Bilketa hori bere ahizpa gazteei pasako die haiek biltegitratzeko. Lan honetan bere bizi-

tzaren azken egunera arte jarduten da, hiltzera erlauntzatik urrun joaten den arte. Gizakiak dio lana osasuna dela, baina azken urteak jubilatuta pasa nahi...

Erlamandoaren funtzio nagusia jaiotzen diren erreginak estaltzea da, nahiz eta erlauntzaren temperatura erregulatzeko lanetan ere parte hartzen duen. Erlamandoak badu alfer fama, besteren kontura bizi dela diote...Porrotzek dio "erle mandoa, arra harroa, bete mese-dez janariz ahoa, banoa egun pasa litatzera, demasa, udan kaixo bonbon, neguan hor konpon...".

Neguan langileek erlauntzatik bidaltzen dituzte erlamandoak, ez dutelako eginkizunik egiteko eta alferrik ez ditzutelako zainduko. ●

Nafarroa, lurralde ekologikoa

ETORKIZUNA EKOLOGIKOA DA *aurrera goaz!*

Ezagutu ekoizpen ekologikoaren datuak

cpaen.org
navarraecologica.org

A ZE FAUNA!

ARROSARIOA, SEXU-ESTRATEGIA
AURRERAKOIAREN ADIERAZLE

NAGORE ZALDUA MENDIZABAL
ARANZADI ELKARTEKO KIDEA

Itsaso zabalean bada izaki lirdingatsu bat, gorputz gardenekoa, bitxi bezain ezezaguna. Aitzitik, ezin esan genezake ezohikoa denik, haren banaketan munduko itsaso gehienetara zabaltzen baita, Kantauri itsasoa barne. Batzuetan bakarka topatu daitezke, bestetan aldiz lepoko edo arrosarioak bailiran, elkar loturik, kate luzetan. Espeziearen arabera luzera desberdina izan dezakete bakar-kako aleek, milimetro gutxi batzuetatik zentimetro batzuetara; elkartuta osatutako kateek, aldiz, hainbat metro izan ditzakete. Bakarka edo taldean, ez dute igeri egiteko ahalmenik, baina uzkurduraz mugitzen diren animaliak dira, ura ponpatuz gorputz lirdingatsuan barrena, eta ur zutabeen migratzeko gaitasuna dute. Era berean, itsaso zabalean, korronteen baitan jitoan mugituko dira.

Salpak, itsas ornodunetan animalia primitiboenak dira. Izan ere, juxtu-juxtu esan dezakegu ornodun direnik, guztiz garatu gabeko “bizkarrezur” bat baitute (notokorda), haien gorputz gardenari esker bereiz daitekeena. Horretaz gain, animalioek arretaz begiratzuz gero, atal nabarmenik izatekotan, hori laranja-gorritza koloreko kozkor handi borobila da, salpak (eta bereziki haien kateak) urrunagotik itsaso urdin zabalean ikusgarri egiten dituenak. Esfera hori urdaila, hesteak eta ugalketa-organak biltzen dituen zakua da. Funtsean, liseriketaz, ugalketaz eta zirkulazioaz arduratzen den funtzio anizkoitzeko gorputzeko atala.

Bitxikeriekin jarraituz, salpen ugalketa-prozesua ere oso berezia da, itxura



Salpa fusiformis. Bakarkako alea, lehen ale klonatuak sortuak dituela.

primitiboa mantenduta ere milioika urtetan bizirauteko arrakastaren gako izan dena. Lehen belaunaldian (aldi asexualen) salpa bere burua klonatuta ugaltzen den izaki bakartia da. Klonak biderkatuta, haren gorputzetik aterako den zilborheste baten moduko kate luzea sortuko du, haren berdinak diren dozenaka edo ehunka ale txikiz osatuko dena. Une jakin batean katea aske geratuko da eta ama-rengandik emantzipatzen diren kimu heldugabe horiek guztiak emeak izango dira. Ahizpa denak taldean mantenduko dira, ale ar bakarti batek ernaltzen

Salpa fusiformis

TALDEA: Filuma: kordatua / Subfiluma: tunikatua / Klasea: Thaliacea / Ordena: Salpida / Familia: Salpidae / Generoa: Salpa.

NEURRIA: Ale bakartiek milimetro gutxi batzuetatik zentimetro batzuetara (2-5 cm). Elkar lotutako alez osatutako kateek berriz, metroak.


NON BIZI DA? Itsaso zabalean. Kosmopolita da. Distribuziorik zabalena duen salpa da.

ZER JATEN DU? Itoplanktona eta partikula txikiak iragazten ditu.

dituen arte (aldi sexuala). Behin ernaldutakoan, eme horietako bakoitza katetik askatu eta izaera bakartira itzuliko da. Horrela, embrioi ale bakar bat erdituko du, eta horren ostean, gonada arrak garatuko ditu, etorkizuneko (beste eme bakarti baten zilborheste batetik sortutako) kolonia emeak ernaltzeko. Hona hemen salpen sexu jaria korra. Modu honetan, baldintza onuragarrietan azkar ugaltu eta ugalketa sexualaren bidez aniztasun genetikoa bermatzen da; okerreko baldintzetan ordea, klonazioa burutzen dute. Ezin hutsik egin, halako ahalmenarekin.

Kontuan izan salpek gure planetan ezinbesteko funtzio ekologikoa betetzen dutela. Izan ere, ozeanoetako fitoplanktonak (alga mikroskopikoak) itsas gainazalitik datorren karbono dioxidoa xurgatzen du eta beraz salpak, ura iragaziz lortzen duten fitoplanktonaz elikatzen direnez, karbono dioxidoaren bahitzaile bikainak dira. Gardena, bitxia, eta zaharra bezain errespetagarria. Ez baitago hainbeste bizidunik munduan, honen moduan ugaltzeko ahalmenik duenik; eta hori, garunik gabe. Oraindik ere “primitibotzat” hartu behar al genituzke? ●

INTSUSA LORE EDARIAK



Intsusa beltzaren lorea.



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Edanari emateko prest? Uda atari hau aproposa da gero berokoak etortzean ez lehertzeko edariak destiltatzeko. Hezetasunari eustea garrantzitsua da gorputzari bere onean atxikitzeko, eta etxean sortutako mamarekin bada zer esanik ez.

Intsusa edo sabuka (*Sambucus nigra*) loratzen ari da eta bere loreak hedatzen duen lurrin ezin ederragoa, ezin xaloagoa ez baduzu ezagutzen, utzi pantailari begiratzeari eta abiatu intsusaren buskara. Maiatzeko lana da intsusaratzea, hor egingo duzu topo erle, liztortxo, euli, tximeleta eta bere nektarraren zale saldoarekin. Udaberri bete-betearekin egingo duzu topo. Orain intsusa dirdaitso dago, lore zurien multzo planoak, korinboak, zerurantz luzatuta dituela. Eta usaina, ummm! Ezin delikatuagoa.

Usain fin eta leun hori jaso nahi ba-

dugu, onena edariak egitea da. Errexi-menta, marmelada eta abar ere egiten dira, baina lurrina ia erabat galtzen da. Egun eguzkitsuetan bildu behar da lorea, lehorra bada hobea; hezea badago lurrina ahultzen da eta erraz zimeltzen.

Garbiñe Larreak bere *Sendabelarrekdakitena* liburu zoragarrian "Intsusa lore xanpaina" egitea proposatzen digu. Errezeta erraz eta emaitza fina eta gustagarria duena. Ez dut hemen errepikatuko, liburua eskuratu, mesedez, gehiago idatzi ditzan...

Intsusa beratutako ardoa ere ez da txarra. Litro bete ardo zuri lehorrean beratu sei-zortzi intsusa lore. Egun pare batera loreak atera, zukutu, ardoa oihal mehe batetik iragazi eta botila edo nahi den ontzian jarri, 150 g azukre eta, nahi izatera, 20 cl alkohol edangarri huts edo uxuala erantsi, ondo astindu eta 15 bat

AGENDA

MAIATZAK 16 ZUMAIA: Josebe Blancoren hitzaldia *Hausnarrean*, *ardiek egin naute artzain* liburutik abiatuta. 18:30ean Emakumeon* Etxean.

MAIATZAK 17 AMOROTO: Garbiñe Larreaken eskutik, "Sendabelarrekin gibel garbiketa tailerra". 17:00etan Kultur Etxean. Izena emateko: kultura.amoroto@gmail.com edo 946 842 549.

MAIATZAK 17 LEITZA: Josebe Blancoren hitzaldia *Hausnarrean*, *ardiek egin naute artzain* liburutik abiatuta. 18:00etan.

MAIATZAK 18 ARTEA, ARRATIA: Josebe Blancoren hitzaldia *Hausnarrean*, *ardiek egin naute artzain* liburutik abiatuta. 11:30ean Herriko Bentan.

MAIATZAK 23 ARRASATE: Garbiñe Larreaken eskutik "Zazpi sendabelar ukendua egiteko tailerra". 18:00etan Kultur Etxean. Eman izena bertara zuzenduta.

egunez utzi etxeko tenperaturan. Kontuz ireki eta gozatu txinparta.

Ardoa berotu daiteke, eta intsusa bezala beste osagai batzuk gehitu, inguruan loretan dauden landareen loreak, hostoak eta haziak, adibidez; baita azukre pixka bat ere. Ardoa berotu, irakin aurretik sua kendu, egun erdiz utzi, ondo iragazi eta botilaratu. Hurrengo egunean bermut ederra izango duzu.

Edari arin eta xaloagoa ere egin dezakezu. Litro bete ura irakin eta zortzi-hamar intsusa loreren gainera bota, limoi baten azala eta zukua erantsi, oihal batekin estali eta egun bat utzi, iragazi, irakin gabe berotu eta 125 g ezti nahastu. Di-da botilaratu, estali eta hoztutakoan hozkailura.

Edana ondo dago, baina orain loreak etxeratzean entsaladari, saltsako edozeiri ere gehitu, intsusa loreak ez dizu huts egingo. Altza eta intsuseta! ●

ERLAUNTZAKO AIREA ARNASTEAREN ONURAK



GARAZI ZABALETA

Eladi Balerdi erlezainaren eta Jose Manuel Atxaga erleen zale sutsuaren arteko elkarlanetik egitasmo berritzailea sortu da duela gutxi. "Arnastu erlauntzaren airea" eta "Erleen sauna" jarduerak proposatu dituzte, konbentziturata baitaude onuragarri direla osasunerako eta bereziki arnasketa sistemarako. Azkoni-ta erlezaintza proiektuko kide da Balerdi eta bere erlauntzak darabiltzate jarduera berrian. Atxaga, berriz, erlezaina izan ez arren, aspalditik dabil erlezaintzako produktuen munduan sartuta. Berak izan zuen Katalunian eta beste zenbait tokitan martxan zegoen jarduera berezi horren berri, eta Euskal Herrira ekartzea bururatu zitzaion.

KATALUNIAKO ESPERIENTZIATIK IKASTEN

Sabadellen antzeko beste proiektu bat martxan zegoela jakin zuen Atxagak, eta hor hasi zen dena. "Hango kideari deitu nion zuzenean, eta bere instalakuntzara bisitan joan nintzen jarduera nola zen ezagutzeko", azaldu du. Eredu hura Gipuzkoara ekartzeko lanean hasi zen segidan, eta orduan jarri zen aspalditik ezagutzen zuen Balerdirekin harremanetan. "Apiterapia egiteko baimenak eskatu behar izan ditugu, eta niretzat ere berria da hau guztia, orain arte ezta, erregina-jelea eta horrelakoak ekoiztera mugatzen bainintzen", dio Balerdik.

Katalunian ez ezik, Europako ekialdeko herrietan jarduera nahiko ohikoak omen dira erlauntzako airea arnastea eta erleen sauna. Dena dela,



Erlauntza arnasteko (irudian) eta erleen sauna erabiltzeko aukera ematen dute Ikaztegiatan jarri dituzten bi etxolek.

Kataluniako esperientzia izan dute oinarri Balerdik eta Atxagak: "Hark bere esperientzia kontatu digu, eta horren arabera, asmarekin edo bestelako arazoekin joan den jendeari on egin dio, beraz, probatzea da kontua". Jardueraren berri emateko zabaldu duten mezuan nabarmendu dutenez, onurak dakartza alor hauetan: sasoi-alerkiak, sistema immunitarioa, biriketako gaitasuna, estresa, insomnia, antsietatea eta parkinsona. "Kataluniako Unibertsitateko ikerketa baten arabera, kanpoan arnas dezakegun kalitate oneneko airea

baino hamar aldiz hobea da pertsonentzat erlauntzako", dio Atxagak.

ETXOLATXOAK IKAZTEGIETAN

Bi zerbitzu eskaintzen dituzte Ikaztegiatoko lur-sailean jarri dituzten etxoletan. Lehen etxolan bost erlauntza daude, eta horietako bakoitzak erauzgailu bat du maskarila txiki batekin, bezeroak erlauntzako airea arnas dezan. Ordu erdiko jarduera da hori. Bigarrenak, berriz, "Erleen sauna" bezala izendatu dutenak, horrela funtzionatzen du: sei erlauntza jarri dituzte etxola batean goitik irekita; gelan bi litera daude, eta horietako bakoitzaren azpian daude erlauntzak, sare batekin itxita. Erlauntza 35 gradutan egon ohi da, beroa sortzen du. Ordubeteko saioa da hori. "Atmosfera berezia sortzen da, soina eta erleen

bibrazioa... hori guztia sentitzen du etzanda dagoenak", azaldu du Balerdik.

Erlezainak nabarmendu du, dena den, ez dela egun batetik bestera arazoa konponduko duen jarduera miragarri bat, jarraipena behar duela. Baina, dioenez, onena jendeak zuzenean probatzea eta on egiten dion edo ez erabakitzea da. "Probatu egin beharra dago, eta on egiten badio, bada, aurrera".

Informazio gehiago jasotzeko edo proiektuko kideekin harremanetan jartzeko, bi telefono eman dituzte: 618 25 49 71 eta 639 18 78 09. ●

FORMAKUNTZA



DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA

Taldea sendotzeko urteko zita Zumaiako festetan

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Jakin nuen duela aste batzuk ARGIA-ko lantaldekoak ostiral batez eguna Zumaiako pasatzekoak zirela. Apirilaren 12an, justuki. Urtean behin egiten duten taldeko formazio-saioa zutela azaldu zidaten eta nik, orain ez hainbeste urte di-da lotura segundo erdi batean egingo banuen ere, egun batzuk kosta zitzaidan konexioa egitea: bale, formazioa bai, baina festak (santelmoak) ere bai... Beti iruditu izan zaizkit interesgarriak kontu hauek taldea egiterako garaian, bai formazio-saioa eta baita parrandarena ere. Gauekoaren berririk ez dut, baina egunak zenbateraino eman zuten kontatu didate.

Bi zatitan banatu zuten eguna Foronda Jauregian antolatutako saioan. Goizean zehar barne komunikazioaren inguruan aritu ziren Aise kooperatibako Garoa Gartzandiaren laguntzarekin. Egunerokoan kanpora begirako komunikazioa lantzen duenak nola komunikatzen du barne-mailan? Nola dago taldeko harremana aspektu horretan?

Ekipoan bakoitzak hartzen dituen rolak eta jokatzeko funtzioak aztertutuzte, bai eta gai sentsibleagoak izan daitezkeenak kudeatzeko estrategiak eta moduak ere. Aise kooperatiba talde-prozesuetan espezializatutako enpresa da eta Gartzandiak lehen zati batean teorizatu du ARGIAk landu nahi zituen gaien inguruan, gero teoria hori enpresara ekarri eta ARGIAren terrenon nola aplikatu lantzeko. Hitz egin dute gai delikatuak tratatzeko espazioen beharraz, formez, komunikazio ez bortitzaz... eta teoriak mintzatzea erraza izan badaiteke ere, etxeko lanekin itzuli dira lantokira batzuk, Zumaiako hitz egindakoak aplikatzen hasita baita orain helburua.

Arratsaldean erretiroa hartzerakoan Bego Zuza eta Pello Zubiria taldeko beteranoei eman diete hitza. Transmisioan jarri nahi izan dute indarra. Hobe edo okerrago, baina enpresak urte hauetan egindako bidea zaharrek gazteei azaltzeari ARGIAk ematen dio ga-

Ongi etorri Komunitatera!

Arrazoi hauek eman dituzte egun hauetan ARGIA Jende egin diren kide berrietako batzuek, komunikabide independente hau ekonomikoki babestu eta proiektua bultzatzeko. Ongi etorri denei, komunitatera!

“ ”

“Euskarazko hedabideei bultzada emateaz gain, albisteak lantzeko duzun modu erakargarriagatik nahiz kolaboratzaile talde ederragatik”


Lezotik Iratik

“Kanpoan bizi naizenez, faltan dudalako euskaraz irakurtzea eta ARGIAk euskararen eta kazetaritzaren alde azken mendean egindako lanak, eta egun eskaintzen duzunak, duda gabe merezi duelako”

Bartzelonatik Beñatek

rrantzia. Zuza enpresa ikuspegiar aritu zen, Ametzagañaz, krisi handietan elkar babesteko aukera izatearen garrantziaz, eta abar; Zubiria, aldiz, kazetaritzan zentratu zen gehiago. Solasaldi moduan hasi zenak galdera-erantzun eta konbertsazio informalago baten forma hartu zuen amaierarako. Eta hemendik ere etxeko lanak gazteentzat: Ametzagaña osatzen duten lau enpresen arteko lotura hori gehiago lantzea eta ezagutzea.

Giroa azpimarratu dute formazioa antolatzen ibili diren lantaldekoek, ez direla talde osoa ia inoiz elkartzen eta horrelakoek indartzen dutela ekipoa. Batzuk poltsa lanez beteta eta beste batzuk oraindik ajea guztiz pasa gabe, baina astelehenean ilusioz bueltatu omen ziren lanera. Ez da gutxi! ●



Erdi Aroan erditzea



NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

Toledo, 1272-1280. Alfonsso X.a Gaztelakoak Ama Birjinari eskainitako 427 kanta monodiko bildu zituen. Santa Mariaren Kantigek Erdi Aroko musika eta literatura bildumarik garrantzitsuenetakoa osatzen dute, baina, kantiga miniaturaz apainduta daudenez, ilustrazio horiek beste hainbat alorretan ere ekarpenak egin dituzte. Esaterako, amatasunari buruzko informazioa ematen dute, miniatura horietako batzuetan erditzeko hainbat jarrera irudikatu baitzituzten.

Erdi Aroan ama izateari buruzko informazioa urria izan arren, amen zuzeneko testigantza gutxi batzuk ere iritsi zaizkigu: esaterako, badakigu XII. mendeko emakume nekazari batek bere haurrak “nire begietako argia” zirela esan zuela. Eta esaldi hori erabili du Maria Jesus Fuente historialariak Erdi Aroko amatasunari buruzko liburuaren izenburu modura: *La luz de mis ojos. Ser madre en la Edad Media* (Taurus, 2023).

Kantigetan bezala, Ama Birjina zen ama eredu Europa kristauan. Ama Birjinaren bidez, kristautasunak emakumeen gorputzaren kontrola eta pekatu sexualen kondena ezarri zuen.

Abortua eta antisorgailuak ere gogor kondenatzen zituen elizak, baina horrek ez du esan nahi praktikatzen ez zirenik. Garaiko medikuntza tratatuetan abortatzeko hainbat modu jaso zituzten: belar, edabe eta onddo toxikoak hartzea, odolateratzeak, muturreko ariketa fisikoak,



Santa Mariaren Kantigen ilustrazio batzuek ama izateari buruzko informazioa ematen dute. Bestek beste, erditzeko hainbat jarrera ageri dira miniaturretan, esaterako, 17. kantigan (ezkerrean) eta 89.irudian (eskuinean).

zama handiak hartzea... Eta metodo ere bortitzagoak ere jaso ditu Fuentek liburuan, esaterako, “eraso bidezko abortua, alegia, emakumea jipoitzea fetua hil arte”.

Amaren maitasun eta atxikimendu sentimenduak ere hizpide ditu historialariak. Sentipen horien testigantzak oso urriak dira duela gutxi arte, eta hurrekiko atxikimendu eza haurren heriotza tasa handiari egotzi izan zaio. Baina Maria Jesus Fuentek beste arrazoi batzuk nabarmendu ditu. Nobleziako eta errege familietako amek ez zieten hurrei bularra ematen; inudeak eta zaintzaileak erabiltzen zituzten jaio eta berehala,

“amek oinordeko gehiago eman behar baitzituzten lehenbailehen”. Eta emakume pobreen kasuan ere haurrak abandonatzea ohikoa zen, nahikoa denborarik eta baliabiderik ez zutelako. “Hori gaur ere gertatzen da”, dio Fuentek, “emakume askok ezin dituzte haurrak zaindu beren testuingurua dela eta”.

Oro har liburuak nabarmentzen du, orainkeria baztertuz gero, amatasunari, erditzeari, abortuari edo haurrak zaintzeari buruz dauzkagun kontzeptu askok Erdi Aroan dutela oinarria, eta kontzeptu horiek gainetik ezin astindu gabiltzala oraindik. ●



JOHANNES PREISER-KAPPELLER

Islandiak izoztu zuen Konstantinopla

Teofanes Aitorlea kronikalariak jaso zuenez, 763-764ko negua inoizko hotzenetakoa izan zen Konstantinoplan. Elurrak eta izotza hartu omen zuten bizantziar hiriburua eta Bosforon iceberg bat ere ikusi omen zuten. Orain arte klima hoztea, bestek beste, jarduera bolkanikori ezak eragin zuela uste izan da. Baina Bernako unibetsitateko eta Austriako Zientzia

Akademiako ikerlariak alderantzizko ondorioa atera berri dute: erupzio bolkaniko bortitzek eragin zuten izotzaldi jakin hura, zehazki Islandiako sumendien erupzioek. Katla sumendia aktibo egon zen 751 eta 763 urteen artean eta atmosferara igorritako sufre partikulek eguzkiaren eragina apaldu eta tenperatura ipar hemisferio osoan jaistea eragin zuten. ●

Pastoral bat Iruñearendako

Herri-antzerki forma bat da pastoral. Sujet edo protagonista bat (hildakoa) hautatu eta bere bizia bertsotan ematen duena. Kantua ere presente dago emanaldian. Taula zuzendaria, taula gainean arituko diren arizaleak eta musikariak aritzen dira pastoral ematen den egunean bertan, baina ho-

nen prestaketa lanetan ezinbestekoak diren beste batzuk ere badira, hala nola idazlea, jostunak edota logistika kontuez arduratzen direnak. 2015ean ikusi zuen Iruñeak bertako jendeak sorturiko lehen pastoral, Joxemiel Bidador. Bigarrena da aurtengo hau, Julia Fernandez Zabaleta sujet duelarik.

 AMETS ARANGUREN ARRIETA  IVAN AGUINAGA

Burgoen Plaza hartu zuen *Joxemiel Bidador, Iruñeko Euskaldunak* pastoral gogoan, pentsa daiteke duela ia hamar urteko haren jarraipena dela 2024ko *Julia Fernandez Zabaleta*. Zerikusirik izan bai, baina bere horretan jarraipena dela ez lukete esanen aurtengo pastoralaren lanketa-prozesuan buru-belarri dabilzan Ihitz Iriartek eta Irantzu Fernandezek: “Lau elkarteren artean antolaturiko pastoral izan zen *Bidador*. Lau horien artean bazen Zaldiko Maldiko -Iruñeko Alde Zaharreko Kultur Elkarte bat da-, eta lehen pastoral hark jende multzo handia bildu zuen. Gero, egia da ere, horren ostean segituan hasi zela kantu tailerra Zaldiko Maldikon eta pastoraletik ere jende bat etorri dela kantu tailerrera, baina jadanik pastoral horretan zegoen jende batek bazuen bere kantu tailerra edo dena delakoa”.

Irantzu Fernandez iruindarrak gorpuztuko du Julia Fernandez Zabaleta, eta Ihitz Iriart taula zuzendari izanen da. Xiberotarra da sortzez Iriart, baina

Iruñean bizi da duela zazpi urte. Zaldiko Maldiko elkarteko bazkide da, eta berak gidatzen du aurrez aipaturiko kantu tailerra, 2024ko pastoralaren sorburuan dagoena: “Beste jarraipen punturik baltz da agian jendearen imajinarioan lehen pastoral ikusi zuela, eta agian bigarrena ikusiko duela; beraz, jarraipen bat bada zentzu horretatik ere”. Hala ere, bigarrena denez, ohitura denik ezin esan oraindik, Iriarten iritzi.

Bada, nolana ere, berezitasun aipagarriarik, Iriarten esanetan: “*Bidador* pastoralaz oso proposamen desberdina izanen da, idazlez aldatu baitugu [Jon Alonso izan zen lehenengo hartan; Mikel Taberna da oraingoan] eta kantatzen den garaia ere desberdina da, baita aktoreak eta musikariak ere. Taularatzeko momentuan ere pentsatzen dut denak desberdin gaudela, urteak pasatu baitira. Kasik hamar urte beranduagoko pertsonen egina da; bada salto bat.”

Bidador pastoraletan Iruñeko beste-lako pertsonaia euskaldunak ere agertu ziren taula gainean eta Julia Fernandez

Zabaleta izan zen horietako bat, beraz, aurtengo sujetaren hautuak ere badu aitzindaria. Kasualitatez edo kausalitatez, duela bederatzita urteko pastoraletan Julia Fernandez haren ahotik bezalaxe, aurtengoan ere Irantzu Fernandezek egingen du kantu.

ZERGATIK JULIA FERNANDEZ ZABALETA?

1898an Iruñean jaiotako emakumea izan zen, Dormitaleria karrikan zehazki. Aita katedraleko organo-jotzailea izanki, hortxe parean bizi ziren. Gazte zelarik euskaldundu zen, urtebetean uste denez, eta segituan hasi zen han-hemen hitzaldiak ematen. Doneztebera gonbidatu zuen halako batera, adibidez, Euskaltzaindiak berak. Horrez gain, pedagogikoki ere aitzindari izan zen, Iruñeko Udalaren beka bat lortuta joan baitzen Bartzelonara Maria Montessorirekin ikastera. Bertatik itzuli, ikasitakoa egokitu eta irakasle lanetan hasi zen. Emakume Abertzaleen Batzako (EAB) kide aktibo ere izan zen eta ez zen sekula emakumearen presentzia alda-

Julia Fernandez Zabaleta

PASTORALA
EMAKUME AITZINDARIAK



rrikatzeaz nekatu. Juliaren pertsonaia bere egin duen Irantzu Fernandezek zera dio: "Ildo pedagogiko berritzailea alde batetik, abertzaletasuna eta euskaltzaletasuna bestetik eta horri aldarri feminista gehituta... eta hori dena bizi izan zuen garaian... Holako figura bat hemen izatea eta horren ezezaguna izatea... baina nola liteke? Niri iruditzen zait benetan pastoral eta edozer gehiago merezi duela emakume honek".

Erbestera ere joan behar izan zuen: "Ez da bakarrik egin behar direla gauza horiek eta beraz egiten ditu, ezta? Hor bada benetako arrisku bat... Beti zetorrenari aurre egiten".

ETA ZERGATIK PASTORAL FORMATUAN?

Hori zelako helburua. Kantu tailerren kantuak ikasi eta ikasi eta errepertorioa handitzen zihoazela ikusten zuten parte-hartzaileek, baina kontzientzia ziren Iruñean ikuskizun moduan izan ezean, ez dela sobera leku kalean kantuan gustura aritzeko. Bazkalbu-



ruetan-eta tarteka sortzen dira kantu-rako momentuak, baina kalean kantuz aritzeko ohitura handirik ez dago, ez bada data puntualetan, Eguberrietan edo Sanferminetan kasu. "Garai batean debekatu zen, eta beno, horrek uste dut ongi funtzionatu duela. Orain musika tabernetan besterik ez dago, eta horrek ekartzen du gurea bezalako kantu tailer bat ez dagoela egin ikusgarri formatuan aritzeko, baizik eta helburua zela tailer horretan dagoen pertsona bakoitzak ikas zezan euskal kantuan gehiago, jabetu zedin daukagun ondare zahar eta berriaz", azaldu du kantu tailerreko gidariak.

Gauzak horrela, proposamena eraman zuen Iriartek kantu tailerrera: "Ariketa bat eginen dugu: pastoral bat". Buruan izanda ere, hastapenean helburua kanpora ematea izan gabe, pastoral landu eta behar bezainbeste denbora hartuko zutela argi zuten. Kanpora emateko aukera mahaigaineratuta, baiezkoa ematera animatu ziren parte-hartzaile gehienak.



ZER EMATEN DIO PASTORALAK IRUÑEARI?

Hiriari ematen dionaz ez du hainbeste pentsatu Fernandezek, baina ziurtatu du iraupenaz beldur izanda ere, etorriko denari ez zaiola damutuko: “Bakarrik emakume hau ezagutzearekin baduzu zerbait irabazia”.

Bertako jendeak egindako kontua izatea azpimarratu nahi izan du, aldi berean, Juliaren rola jokatu duenak: “Bistan da ez garela profesionalak, eta horrek badu xarma, etxeko pastorala da. Jelkaldi edo jalgialdi batean agertzen dira, adibidez, zazpi apaiz. Eta esaten duzu, nola lortuko dugu? Bueno, ba... txukun. Jostunak-eta baditugu, ez da holako muntaia izugarria, baina gure xumetasunean, txukun”.

Iruñeari ekarri diona ikusleak esanen duela erantzun du Iñaki Iriartek, baina “oroitzapen polit bat, Bidador izan den bezala, buruetan dagoen zerbait, egiten dakigun zerbait...” ziur.

TALDEA, BATUTA

Zaldiko Maldikoko kantu tailerragatik elkar ezagutzen zuen jendeak orain beste modu batean ezagutzen duela gehitu du taula zuzendariak: “Bada etengabe hartu-eman bat, behar-beharrezkoa dena denak ongi funtzionatu dezan, ulertzea taldean funtzionatu behar dela nahikoa, badira hor balore batzuk nahi eta nahi ez integratzen direnak... Ez dut esan nahi horrek bizi gutzirako balioko diela, baina beharbada bai”.

Horretaz gain, musika eta kantu idazleen hautaketa ez da ausaz egin: “Agian pastoralean inoiz aritu ez den jende bati egin zaio proposamena, ez dadin gehiago pastorala horren urruti izan haiendako”. Iriartek defendatu du parada eman zaiola bertako pertsona gazte, emakume edo pastoralerako sekula idatzi ez duten pertsona batzuei, eta garrantzia berezia duela horrek.

IRUÑEKOTUA

Walter Benjaminen artearen *autentikotasuna*-ren definizioari erreparatuta, *autentikotasuna*-ren existentzia bere *aura*-ren araberakoa izanen dela aipatzen du. Hau da, arte espresioa *autentikoa* izanen da, baldin eta *aura* baldin badu, hots, baldin eta *hemen* eta *orain* bati erantzuten badio. Modu horretan eutsiko dio bakarrik arte adierazpenak bere funtzio sozialari.

Ildo horretatik mintzatu da Iriart: “Beti ber gaia, ezta? Pastoral bat egin hemen, baina balio dezan hemengo jendearentzat, hemengo erreferentziekin. Hori bada ere pastorala jendeak hurbilago eta bereago sentiarazteko modua, ze beti lotzen zara gehiago zurea den mundura-edo”. Zuberoako “ohiko” pastoraletako zenbait ezaugarri moldatzeko lizentzia hartzeko arazorik ez du izan aloztarrak: “Ez dugu funtzionatu Zuberoan bezala *jelkaldi bat = melodia bat*, baizik eta ideia baten inguruan mantentzea musika berbera. Deliberatu da ere jolastea musikalki soinuekin. Hori ere ez da ohikoa berez, baina bada tresna

bat baliatu duguna. Fanfarre batek eginen ditu urdinen, beraz, *onen* sarrerak eta gaitek joko dituzte gorrien, *gaiztoen*, sarrerak. Denak elkarrekin daudenean, denek joko dute”.

Bide horretatik, azaldu du Iriartek, bertako jendeari euren erritual sortzeko proposamena dela honakoa: “Jendeari etengabe ematea da informazioak eta kodeak, gero erreferentzia horiek berriro ematea erritu bat bilakatzeko”.

“Jakina, ohituta gaude aktoreak Zuberoan musika jakin batzuekin sartzen eta ateratzen ikustera. Hemen dena dago gurera egokitua eta hori oso gauza polita da”, gehitu du Fernandezek. Pastorealean zehar kantatzen dituzten kantu denak, melodiaren bat salbu, espresuki sortuak izan dira pastoralerako eta horrek emanaldia bera aberastu egiten duela bat datoz bi partaideak.

EBIDENTZIAK AZALTZEN

Hamar urterekin hartu zuen lehen aldiz parte pastoralean Iñaki Iriartek Atharratzen, eta beste hainbatetan aritu izan da gerora ere, rol desberdinetan. Taula zuzendari edo errejent gisa, aldiz, ez du sekula izan harremanik Zuberoako pastoraletan. Ez daki inoiz eginen duen, proposamena izan baitu, baina zailtzati dago: “Justuki kontraesan asko dauka nik pastorala ikusteko dudan manerarekin eta ez lidakeelako ematen ere, adibidez, pastoral honetan lan egiteko modua: parte hartzaile gutxi, baina aktiboak”. Pastoral honetan parte



hartzen duen edozein aktiboa dela aldarrikatzen du Iriartek: “Noski, bada taula zuzendari bat azken hitza duena, hori hastapenetik esan nuen, ezin gara 30 egon dena negoziatzen. Zuberoan ehun aktore daude, ezin duzu ber moduan parte hartu, hauei tokatu zaie jadanik Zuberoako herriko pastoral bati konparatuz agian beste forma batez pastoralaz egaztzea”.

Horren erraza izan ez dena imajinarioaren lanketa izan da. *Julia Fernandez Zabaleta* pastorealeko arizale gehienak lehen aldiz ari dira pastorealean: “Horrek esan nahi du kode asko esplikatu behar direla: makila nola ibiltzen den, zein den melodia, zein den kantatzeko modua, zein diren baseak ongi funtzionatu dezan, zer den pastoral... Ate gorria, ate urdina, nondik sartu behar duzun, nondik ez... Pastoralak txikitatik hurbil izan dituenarendako ebidenteegiak direnak azaltzen ibili da Ihitz Iriart azken urte eta erdian.

Aldi berean, ezezagutzak abantaila batzuk ere badakartza eta proposamenak muga gutxiagorekin egiteko

aukera izan dute aktoreek: “Gauza batzuk inuzenteak direnak, baina bederen, proposamenetarako iturria irekia da eta proposatzen diren ideia batzuek balio dute aplikatuak izateko hemen”.

PUBLIKOAREN AURREAN, BI ALDIZ

Erreportajea argitaratu aurreko astean egin zuten lehen saioa eta maiatzaren 12an emanen dute bigarren aldiz. Artean lehen saioa egin gabe zutela, urduritasun puntu batekin baina oso gogotsu mintzatu zaigu Irantzu Fernandez: “Bidadorrekin izan genuen esperientzia, hori nik ez nuke aldatuko deusengatik. Holako *subidoirik* ez dut izan nik...”. Eta Iriartek, barre artean: “Bai, Korrika eta Pastoral”.

“Publikoarekin ohartuko dira hauek ere ze lan egin duten”, aipatu du pastorealeko errejentak. “Publikoak bere jarrera ere aldatu eta egokitu beharko du. Pastoral luzeagoa izanen da aurrekoa baino eta hori ere bada oso interesgarria. Parte hartzen ahalko dute, noski,

ze erreakzioak-eta pastorealaren parte dira, baina haiek ere egokitu beharko dute pastoral berri honetara. Ez da publikoa hezten dela, baina zentzu batean bai, horregatik da hau politikoa”.


Emitza kalitatezkoa izan dadin, pertsonaiari eta testuari eman diote, batez ere, garrantzia parte-hartzaileek. “Saiatu gara beharrezkoa ez zena bazter uzten. Pastoralaz xumea da eta ez goaz Iruñea *petatzera*, baina bagoaz kalitatezko lan polit batekin esku artean eta gogoz jendeak lan horren guztiaren eza-gutza izan dezan”.

Bidador pastorealeko bertso eder bi kantatuz eman nahi izan dio bikoteak amaiera solasaldiari:

Ezin gintezke engaina Xumetasuna gu gara bizirik gaude baina egin dezagun algarra.

Hemen jaio, hemen hazi hemendik kanpo ezin bizi Eta duena merezi euskaraz adierazi! ●

BABESLEA:




HIZKUNTZA

berean hitz egiten dugu


ORKLIN, konfortaren eta pertsonen segurtasunerako souzioetan munduko liderra izanik, hizkuntza berean hitz egiten dugu. Konpromiso sozialaren, zintzotasunaren, talde-lanaren, aniztasunaren eta iraunkortasunaren hizkuntzan aritzen gara... eta gainera euskaraz.

“Funtsezkoa ikusezina da begientzat”
Antoine de Saint-Exupéry





Hitz gezidunak

BERE ESPEZIEAN, HANDIENA ONTZI TXIKI	INOLA ERE EZ INFUSIO MOTA	GOIBURU			DOSPORDOS	KOILARA HANDI DOZENA BAT	AHUL NAFARROAKO HERRIA	MENPEKO, ZERBITZARI KASKARIN, TXORIBURU
XUME, UMIL LETRA GREKOA					LUKURARI UNEKO EGUNEAN			
... EGIN, ERABAT BUSTI SANTU, DEUN	SILABA HINDUISTA ZENTZUMENETAKO BAT		KATALUNIAKO IBAIA ELIZ DEIAK	MODURA ZUBEROA ETA NAFARROA ARTEKO MENDIA		KIROL ELKARTE LAPURTERAZ, DINAT		AUTONOMIA ESTATU GAIAK, MATERIALAK
MASAILEKO	BAGOIZ OSATUTAKO GARRAIOBIDE AMONA	ARAU MULTZO PERTSONAIAREN ABIZENA	SUMENDIAREN AHO KAFETEGIA			HONDAKIN, SOBERAKIN ERREGELA, NORMA		LANTU, KEXU
BEHIAREN OIHUA BIGUN, APURKOR		ARAN UNNILPEN-TIOAREN IKURRA				PERTSONAIAREN IZENA LANDARE MOTA		GIGA SELENIOAREN IKURRA
TXIKI, BAZTERGARRI APAINDU			EGIPTOKO ERREGE RADONAREN IKURRA	MAPA BILDUMA TONA				
						HUTS, AKATS		

Sudoku

BETE ITZAZU GELAXKAK 1ETIK 9RAKO ZENBAKIAK IDATZIZ, ZUTABE, LERRO ETA 3X3 KOADRO BAKOITZEAN ERREPIKATU GABE.

	8	9	1			5	6	
2	6			5	8	4		
5			4					
	5		3	9				
9			4	6	8	7	3	
		6	2	1				
1		2	3	5		8		
6	4		7	8	9			1
3		8			6			

5x5

ZEHARRETARA ETA GOITIK BEHERA, HITZ BERA.

- Putzu artifizial.
- Abar.
- Bangladeshko moneta.
- Ikasketak egin.
- Elastikoa, kamiseta.

EBAZPENAK

6	9	5	4	2	8	1	7	3	8
7	4	2	1	4	8	2	1	4	8
4	5	7	8	9	2	3	1	6	9
1	6	2	6	3	5	7	8	4	4
7	3	6	8	2	1	9	4	5	5
9	2	1	5	4	6	8	7	3	6
8	5	4	3	9	7	1	2	6	8
5	1	7	4	6	2	3	9	8	8
2	6	3	9	5	8	4	1	7	7
4	8	9	1	7	3	5	6	2	2

1. PATIN
2. ADAKI
3. TAKAK
4. IKASI
5. NIKIA

P	N	A	V	N	P	I	N	A	V	T	U	K	E	R
M	E	N	D	R	E	F	E	V	A	T	L	V	A	S
S	V	M	U	R	F	V	R	A	V	O	I	G	I	G
M	V	Z	O	K	A	R	A	N	V	N	A	N	A	E
M	A	Z	E	L	A	K	O	U	Z	K	I	N	I	N
T	R	E	N	K	R	A	T	E	R	R	E	R		
D	O	N	E	V	A	R	V	A	D	I	V	A	E	
M	E	L	V	M	E	L	V	K	L	U	B	A	E	
J	I	M	O	T	G	S	A	R	V	A	V	A		
X	H	E	E	H	U	L	K	U	R	I				
B	V	E	L	H	V	A	V	A	B	I				
M	N	Z												



Zoroangarria

UXUE GUTIERREZ LORENZO TARTEAN TEATROA

Emanaldi baten ondorengo solasaldian partekatzen ditu publikoak ikusi eta entzundakoaren inguruko iritzi eta gogoetak; eta, nolabait, bilgune horrek iraun artean martxan jarraitzen du ikuskizunak. Hala edo nola, oroitzapen bihurtzen diren sentsazioek ematen diote zentzua obrari. Horren menpe bizi da, besteren artean, antzerkia. Emanaldi gogoangarria ontzea da sortzaileen kondena: unean ikuslea liluratu, eta bukatu ondoren emanaldia goraiatu, memorian eraman dezan. Esaten denez, ahazten ez dena ez baita inoiz hiltzen. Ikusleen gomutak iraurarazten du kontakizuna. Emanaldi gogoangarria osatu nahian azaldu da gaurko emanaldiko protagonista oholtzara.

Izenburuak aurreratu bezala, Patxo Telleria antzezlea agertu da eszenan, txizatoki bat eskutan. Txizatokia, kasu hone tan behintzat, Bira kulturguneko komu netik hartu du zuzenean, itsasgarritz ondo

hornituta. Jatorrian, Marcel Duchamp-ek txizatoki bat jarri zuen erakusgai museo batean, artearen kontzeptua kolokan jartzeko asmoz. Antzerkira ekarri du Telleriak ekintza iraultzailea.

Bira kulturgunean elkartu gara 30 bat ikusle asteazken iluntzean. Elementu bakan batzuek osatzen dute eszenografia. Lurrean alfonbra bat, eta ezkerreko aldean asto batean pausatutako arbel bat; eskuinean, aldiz, mahaizko beltz bat. Txizatokia mahai beltzean pausatu, eta traje urdinez jantzita bere egitekoa iragarri du antzezleak: antzerki ostekoaren erretratu zoroa osatu nahi du, oraindik bizi ez dugun geroa orainaldi bilakatuta.

Geroa den orainean antzezlanaren bukatua dago, eta Biraren kanpoaldean txutxu-mutxuka gabiltza denok. Berehala hasi da iritzi zaparrada: "Zapatero a tus zapatos" dio batek, "Oso ados, mierda bat!" erantzun aldamenekoak; eta, nos-

TXIZATOKI BAT ESZENATOKIAN

NOIZ: apirilaren 17an

NON: Bilboko Bira kulturgunean

ki, "Aizue, goazen aurreko tabernara" da solasaldiaren protagonistetako bat. Antzezleak eta horien lanak epaitzen, kritikatzeko eta sailkatzeko gabiltza gu, eta antzera egin du Telleriak gurekin. Gutako bakoitzak rol bat gorpuztu du, eta gure hitzak jaso ditu antzezlearen arbelean. Denarik dago: aditu plantak egiten dituen sasi intelektuala, ezer ulertu ez arren gozatu duen ikuslea, ondorengo *potearen* aitzakian gerturatu dena, emanaldia zoragarria iruditzen zaiona, sortzailearen sentimenduez arduratzen dena...

Emanaldia, arbelean jasotako esaldiek, horiek gorpuzten dituzten ikusleek eta Telleriaren hausnarketa eta hitz jokoek harilkatu dute. Akaso, txizatoki bat eszenatokian jartzea nahikoa delako emanaldi gogoangarri bat sortzeko. Elegantziaz eta umorez, emanaldi *zoroangarria* sortu du Telleriak. Zoroa izan da, gozagarria, gogoangarria; eta hitz batean, zoragarria. ●



Babesten gaituen itsasoa



ITSASO AMNIOTIKOA OIHANE JAKA

ELKAR, 2024

AINHOA ALDAZABAL GALLASTEGUI

Oihana Jakaren poema liburua ireki eta eskaintza bi aurkituko ditugu. Aitari bata, seme-alabei bestea. Aipagarria da, topatuko ditugun poemekin lotura zuzena baitute.

Liburuaren egiturak hiru atal ditu: *Hamaika urte*, *Hamaika hilabete* eta *Hamaika egun*. Hamaika zenbakia asko esateko modua ere bada euskaraz. Urte, hilabete eta egun, bata bestearen barruan sartzen diren denbora tartekak dira, eta liburuan aipatzen den matrioxkaren irudia sortu daiteke. Hiru atalak harilkatzen asmatu egin duela uste dut: irudi berdinei eman-dako esanahi desberdinen bitartez, besteak beste.

Lehenengo atalean *ni* poetikoak aita hil zenean zuen adinari egiten dio erreferentzia. Atal honetan aurkituko ditugun poemek galera goiztiar horrek utzitako arrastoari buruz hitz egiten dute, esaterako, azken poemako azken bi lerroetan: *Aitaren heriotzak libreago egingo nindukeen, / hain gazte izan ez banintz askatzeko.*

17. orriko poema ispilu modura idatzita dago. Goitik behera eta behetik gora esaldi berak erabiltzen ditu, eta hala, palindromo eder bat osatu du. Aitaren urtebetetze eguna ospatzen jarraitzen duen *ni* poetikoak ispiatze baten modura bizi du aitaren urtemuga eta formak edukia zoragarri biltzen duelakoan nago. Izugarri gustatu zait bere hildakok nola (a)gurtu ez jakitearen inguruan hausnartzen duen poema ere (20).


Bigarren atalean, *ni* poetikoak jaio aurretik galdu duen haurraren galeraz hitz egiten du. *Nora ote doaz jaio ez diren haurrak? / orain, etxe hutsa da nire sabela* (27). Bigarren haur baten haurdunaldiaz ere hitz egiten digu *ni* poetikoak hirugarren atalera salto egin aurretik: *Bi bihotz ditut / eta ez naiz munstroa. / Matrioxka bat bestearen barruan / horixe bakarrik.*

Hirugarren atala da luzeena eta hamaikagarren egunean ospitaletik etxera bueltatzeko denbora tartekak mugatzen du izenburua. Nahi ez bezala gertatu zen erditzeaz hitz egiten du: horrek eraginda-

ko min, orban eta zauriez. Galdutako haurraren ondoren jaiotzeak sortzen dituen zalantzez, orban hori ahazteko beldurraz eta abar. Irudi boteretsuak erabili ditu atal honetan autoreak: *Behinola / belarritik sartu zitzaidan olatua / hanka tartetik atera zen / uholdeka. / Arrain eta guzti* (57). Edo *amnesia jeta zegoen maskuria* (62). Batzuetan nahasgarria iruditu zait zeini buruz ari den edota ahotsa nori ari zaion berbetan.

Gustatu zait estiloa: tarteka zuzena eta gordina da, irudi eta metaforen erabilera ederra egiten du, eguneroko hizkuntza eta detaileak azpimarratzen ditu, hitz jolas ingeniosoak erabili... Ione Gorostazuren *Ez da erditzea* liburua gogorarazi dit, desberdinak izanagatik, gai batzuk izendatzeko beharra ikusten baitut bietan. Eta Karnele Igartuaren usaina ere hartu diot: itsasoaren irudiak hainbat esanahi nola hartzen dituen ikusita edota 65. orriko poema (*ez da berdin...*) horretan.

Itsaso horretan murgiltzeko gonbidapena luzatzen dizuet nik ere. ●



MUSIKA

Bazen ordua iraultzeko

EL VOLQUETE EL NO-DO DE AUTOEKOIZPENA



IKER BARANDIARAN

Gaztetxotan *Eskorbutin* itxura hartzen nion arren, Aramaion jaiotako Antton Carrerterok beti izan du begirada luzeagoa: punka bai, jakina, eta kinya bada hobe, baina beste estilo askori erreparatzen die aurreiritziei paso eginda; *canallagoei*, sentikorragoei... Horiek guztiek laguntzen diote barne *destroyerra* eta miseriak azaleratzen.

2019an hasi zen barruko –eta gizarteko– mamuak hitzetan hustu eta musikatzen; eta poliki-poliki taldea osatzea lortu zuen Guillek baxuan eta *Barba-k* (Los Cretinos) baterian lagunduta. Baina pandemia tartean eta Antton beste hainbat proiektu interesgarritan murgildu ibili denez, (112, Chulería Joder!) El Volquete utzita izan dute luzaroen. Hala, fundamentua egin eta urtea pasatxoko epean hiru disko grabatu ditu Anttonek; azkena, honako hau. Entsegu lokalean bertan, eta Mikel Arriaran *Arri-ren* –Never Surrender, Arkada Social, Des-Kontrol– gidaritzapean, zazpi kantu egin dituzte, eta hala, taldearen NO-DO propioa plazaratu.



Zalantzarik gabe, itxaronaldi luzeak merezi izan du. Hitzek eta ahotsak garrantzi handia daukate, ohikotik al-

dendu dira, erdi tempoak gustuko dituzte, eta asko dira Anttonek irudimenez eta kaleko ahots gisa oka egindako perlak: *Somos polvos y calendarios*, *Ir al bar no es militar*, *Tus abrazos van a ser mi mortaja...*

Te lo juro por mi libertad gizarteari okada garratza da, gitarra ilun distiratsuak eta erdi tempoak, zeinak tartean 1977ko punkarekin uztartzen dituen. *Mierdas de la TV* biziagoa da, aldaketa askorekin, eta La URSS zein Biznaga taldeen tankerako post-punk gitarrak ditu; *hit!*-a. *Ir al bar*-ek pub-rocka, rock-and-rolla eta parranda usaina dakartza. *Cinco autobuses de segunda mano* ere itzela da, punk-rock indartsu eta irmoa, itsaskorra ere bai. *Sección de congelados* da rock curriqui-a, kalekoa eta bizia. *Mortaja*, aldiz, punk *siniestroaren* esentzia, koktelera Paralisis, Lords of The New Church eta Gabinete Caligari-ri keinu

egiten diona. Bukatzeko, *Las perreras*, gaiztotzen eta garratzen den balada rockeroa da. ●

Patinetefobia

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

Joan den astean ikusi dut BBCK iaz es-treinatu zuen *Fight the Power: How Hip-Hop Changed the World* telesail dokumentala, Public Enemyko Chuck D-k ekoiztua: lau kapitulutan hip hop kulturaren mende Erdiko historia errepasatzen du, esplikatzeko nola bihurtu zen New Yorkeko auzorik pobreenetako jendearen espresio-bidea mundu osoan joera kultural nagusietako bat. Puntu on bat dauka: etengabe bilatzen du fenomeno kulturalaren eta hura sortu zuen jendearen bizi-baldintzen arteko lotura; eta horregatik, segun eta nola begiratu duzun, AEBen azken mende Erdiko historia ere bada, afroamerikarren ikus-puntutik kontatua.

Momentu batean, Bill Clintonen administrazioak drogen aferan hartutako jarrera aipatzen dute protagonistek: nola askoz gogorrago zigortu zuten 1990eko hamarkadan crack gramo batzuekin atxilotutako jendea –gehienak beltzak eta pobreak–, kokaina kopuru berarekin harrapatzen zuten jendearen

aldean –klase ertaineko zuriak–. Eta nola horren erruz gazte afroamerikarren belaunaldi ia oso bat espetxeratu zuten. Raperoen historia, bat batean, Montesquieuren *Legeen espirituaz*-en irakurketa sarkastikoa bihurtu zitzaidan: “Legeak, beren adierarik zabalean, gauzen izaeratik eratoritzen diren beharrezko erlazioak dira”. Zuriak beltza hankapean eduki beharra gauzen izaera gisa ulertuta, berehala ulertzen da gorputzean sartzen dugun kakari zegokion legedi usamerikarrak zer nolako erlazioak ezarri zituen.

Kontu hori neukan buruan larunbat goizean titular bat gosaldtu nuenean: patinete elektrikoak sartzea debekatu dute Gipuzkoako garraiobide publiko guztietan astelehen honetatik aurrera. Seguritasun arrazoiak eta tartar-jarratzen zuten notiziak, baina guk gosaltzen bukatu eta bizikletan joan behar genuen ondoko herrira. Ahalduntze handiko esperientzia da txirrindulariarentzat, ahal duenean bidegorria

erabiltzen baitu; eta gainontzean, ahal duen bezala eragiten die pedalei probintziako kórner honetan, normalean auto tartean, ahalduradunen batek asuntua arreglatzen ez duen bitartean.

Txirrindulariez gain, patinete elektrikoak ere saiatzen ziren kotxepean ez bukatzen. Eta haien gainean ikusi nituen zortzi lagunetatik bakarrak zeukan nire azal kolore bera –hark ere ez zirudien billeteetan bainatzen den norbait, portzierto–. Merkezurreko soziologian aritzea leporatuko dit baten batek, baina esango nuke erabakiak hartzeko faktore bat badagoela hor: tren eta autobusetan patineteak debekatzean, traste koxkor horiek eragin ditzaketan problemek bezainbesteko eragina izan duela haien erabiltzaile-profilak.

Zeren, gauzak aurreikusi bezala gertatu izan balira, patinete elektrikoek erosle tipikoa *hipster* bat izan balitz, bulegoan Mac bat daukana, kafea sojako esnearekin hartzen duena, beti arropa estreinatzen ari dela dirudien horietakoa, orduan patinetea garraiobide *ecofriendly* gisa aurkeztuko ziguten –hala aurkeztu zuten hasieran, izan ere–. Zer pasa da? Ba orain patinete gainean ikusten dituzula janari-banatzaileak, etxe-garbitzaileak, kafetegikate txaxietan sojako esnedun kafea zerbitzatzeko diguten langileak, eta abar. Bateria baten eta bi gurgiltxoren laguntzaz mugitzen hasi zirenetik –merkea delako, diot nik–, gainbehera bota dute ibilgailu horien irudi publikoa. Istripuei buruzko notiziak barra-barra, alarma soziala eta berehala arauen bidez estu hartzea.

Badirudi garraiobide pribatua elektrifikatzeko prozesuak kotxearen inbututik pasa beharko duela, zerbaiterako egin baitira gure zirkulazio-araudiak eta hiri-plangintzak kotxeinomanoen mesedetan. Gero negarrak eta heiagorak etorriko dira patinetean ibiltzeko ere traba besterik jartzen ez zaionak crack egiten duenean. ●



HAUSNARREAN

Ardiek egin naute artzain

Josebe Blancoren liburua

Aurkezpen hitzaldiak

Apirilak 25 / Agurain. 19:00 Udala

**Maiatzak 16 / Zumaia. 18:30
Emakumeon* Etxea**


**Maiatzak 17 / Leitza. 18:00
Liburutegia**

**Maiatzak 18 / Artea. 11:30
Herriko benta**

Maiatzak 31 / Bilbo. 19:00 Karmela
(Fika kalea 44, Santutxu)

**Ekainak 6 / Gasteiz. 18:30
Elkar liburu-denda** (San Prudencio kalea)

Zure herrian hitzaldia antolatu nahi baduzu,
idatzi: bizibaratzea@bizibaratzea.eus



2. argitaraldia
Prezioa **22€**

azoka.argia.eus (+34) 943 37 15 45

ZIBURUKO 5. LIBURU ETA DISKO AZOKA

EKAINAREN 1EAN



ANTOLATZAILEAK


ARGIA


BALTSAN


DONUELE
MUSEO ETXERAKO

PARTAIDEAK


IRRATIAK


elke

ERAKA KULTUR
ERAKUNDA
MUSEO ETXERAKO
ERAKUNDA

**ZIBURU
CIBOURE**